

**IMMIGRAZIOAREN,  
HERRITARTASUN ETA KULTURA  
ARTEKO BIZIKIDETASUNAREN  
PLANA  
2011-2013**

Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza  
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



# AURKIBIDEA

	Or.
1. <u>AURKEZPENA</u> .....	2
2. <u>LANTZEKO METODOLOGIA</u> .....	5
3. <u>ESKU-HARTZEAREN ESPARRU TEORIKOA</u> .....	9
4. <u>EAEko MIGRAZIO FENOMENOAREN DIAGNOSI OROKORRA</u> .....	16
5. <u>ARAU ESPARRUA</u> .....	39
6. <u>IMMIGRAZIOARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOEN MAPA</u> .....	45
7. <u>PLANAREN ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK ETA OINARRIAK</u> .....	51
8. <u>JARDUNERAKO PROIEKTUAK</u> .....	64
9. <u>PLANAREN KUDEAKETA EREDUA</u> .....	73
10. <u>EBALUAZIOA ETA JARRAIPEN SISTEMA</u> .....	76
11. <u>EKINTZA BANKUA</u> .....	85

## AURKEZPENA

Azken urteotan, Euskadin ere bizi izan dugu giza mugikortasunaren fenomeno globala. Gure hiri, herri eta auzoetako giza aurpegia aldatu egin da. Euskadiko biztanleen artean 145.000 lagunek —biztanleriaren % 6,6k— atzerriko nazionalitatea dute. Horretaz gain, beste 35.000 lagun, gutxi gorabehera, jatorriz atzeritarrak dira baina jada nazionalitate espainola lortu dute. Hortaz, jatorri eta osaera anitzeko gizartea izaki, euskal gizartearen aniztasuna areagotu egin da. Gizarte moderno globalizatueta, immigrazioa ez da fenomeno iragankorra, egiturazkoa baizik. Etorkinak geratzeko, elkarrekin bizitzeko eta euskal gizartearen eraikuntzan parte hartzeko asmoarekin etorri dira. Bada zenbait urte etortzen hasi direla eta euren lan eta osaera demografikoarekin euskal gizartearen produktibitatea handitzen eta biztanleria gazteagotzen laguntzen ari dira.

Atzeritarren etorreran hazkunde handiko hamar urte igaro direlarik, adituek diotenez datozen urteetan egoera bestelakoa izango da: atzeritarren etorrera mantsoagoa izan da eta biztanleria birkokatu egingo da, Autonomia Erkidegoen arteko barne-mugikortasunaren bitartez. Orain, trantsizio-fase batean egongo ginateke, aurreragoko etorkizunaren bidean; etorkizun horretan, zalantzarik gabe, Europako zahartze-prozesuaren arazoa konpontzeko irtenbidearen zati bat immigrazioa izango da.

Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Plan hau aurkeztu nahi dugu. Azken urteotan herritar berri ugari iritsi da EAera eta erakundeek esfortzu handia egin behar izan zuten, politika publikoak etorkinei harrera egitera bideratuta. Orain, fluxuak moteldu eta etorkinak zertxobait egonkortu diren fasean gaudenez, politika publikoen ardatza aldatu egin behar da. Lehen harrera baldin bazen, orain integrazioa, bizikidetasuna, aniztasunaren kudeaketa eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko lana da.

Egiazko berdintasunaren aldeko lan horren esparruan gizartearen, lanaren eta hezkuntzaren arloetako politika sendoak behar ditugu, unibertsalistak baina Herritartasun aniztasun gero eta handiagoa kudeatzeko gai direnak. Zalantzarik gabe, oinarrizko arazo nagusi bati aurre egin beharrean gaude: pobrezia eta bazterketaren “etnifikazioari”. Horrek esan nahi du, gaur egun, egoera txarrean dauden langileen zati garrantzitsu bat jatorriz atzeritarrak direla. “Ezberdinen” (guztion gara ezberdin) arteko bizikidetasunak arrakasta izaten du berdintasun eta segurtasun sozioekonomikoarekin loturiko gutxieneko baldintzak betetzen direnean. Baina berria eta ezberdina den horren aurrean sortu ohi den izuari desoreka sozioekonomikoarekin loturiko arraila gehitzen badiogu, egoera hori populismo xenofoboaren ernamuin bihurtu daiteke, Europako hainbat tokitan ikusi ahal izan dugun moduan.

Aurrekoarekin batera, gure ustez, lehenetsuna eman behar zaio etorkinak integratzeko politiken erakunde-arkitektura indartu eta sendotzeari. Euskadiren barne-eremuan, integrazioari buruzko euskal politikaren erantzukizunak, rolak, eskumenak, tresnak eta baliabideak, oro har, argi eta garbi definitu behar ditugu.

Horregatik, immigrazioari buruzko akordio edo itun sozial bat egitea proposatu dugu gure planean, erakundeetako, gizartearen, politikaren eta ekonomiaren maila guztiak inplikatuz elementu horiek definitzeko prozesuan. Era berean, akordio horren bitartez, diskurtso publikoetan eta eztabaidetan gainditu behar ez ditugun (eta ez gainditzeko konpromisoa hartu behar dugu) mugak erantzukizunez marraztu behar ditugu.

Gaur egun, administrazio publikoetako plangintza-prozesuak tresna funtzional eta estrategikotzat hartzen dira, botere publikoen esku-hartze eremu gero eta konplexuagoak kudeatzeko funtsezkoak. Ikuspuntu horretatik begiratuta, politika publikoak zera dira, administrazio batek gauzatzen dituen helburuen, erabakien eta ekintzen multzo bat, une jakin batean herritarrek edo Gobernuak berak lehentasunezkoztat jotako arazo bat kudeatzeko edota konpontzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoari gagozkiola, legealdiak joan, legealdiak etorri, Planak gero eta gehiago erabiltzen dira Gobernuaren jardura antolatzeko eta kudeatzeko, bereziki, "Gobernu Planak" esaten zaien planen bitartez. Prozesu horren ondorioz, administrazioaren baitan plangintza-kultura sortu dela esan dezakegu eta horri esker, sortzen diren plangintza-prozesuak bateratu eta homogeneousatu egin dira.

Bukatzeko, egungo sailen plangintza zehatzei dagokienez, aipatu behar dugu 2010eko apirilaren 13ko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009-2013 IX. legegintzaldiko Planen eta Jardura Nagusien Egutegia onartu zuela eta egutegi horretan 2011-2013ko Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana egitea proposatu zen. Aurreikuspenaren arabera, 2011. urteko 3. hiruilekoan abiaraziko da plana.

Hori horrela izanik, plangintza honen ardatza zera da, etorkinen integrazioaren arloan garatu beharreko lanaren norabidea eta helburu nagusiak definitzea. Hala ere, EAEn orain arte egin diren immigrazioari buruzko planak ere kontuan izan behar dira:

2003-2005: Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana

2007-2009: Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana

# LANTZEKO METODOLOGIA

Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Plan hau lantzeko prozesuan metodologia dokumental, analitiko eta parte-hartzailean oinarritu gara, erakundeetako eta gizarteko hainbat agenterekin batera.

## Kronograma:

Hilabetea	URTARRILA				OTSAILA				MARTXOA					APIRILA				MAIATZA				EKUINA			
Astea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25
1. fasea: Oinarritzko orientabidea	█																								
2. fasea: Diagnosiak	█	█	█	█	█	█	█	█																	
3. fasea: Koordinazio-egiturak		█	█	█	█																				
4. fasea: Eskara atzematea			█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█												
5. fasea: Jauriaritzaren hasierako plangintza					█	█	█	█	█																
6. fasea: Sailen Plangintzak										█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█					
7. fasea: Jauriaritzaren azken balioespena																		█	█	█	█	█			
8. fasea: Kudeaketa – ebaluazio sistema																		█	█	█	█	█			
9. fasea: Kontrasteko prozesu parte-hartzailea																				█	█	█	█		
10. fasea: Aurkezpen publikoa																								█	

Prozesua abiarazi ostean, lehenengo fasean plana definitzeko oinarritzko orientabideak diseinatzea izan zen lan nagusia. Puntu horretan, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak dokumentu bat egin zuen honako eduki hauekin: xedea, ikuspegia, programaren helburu nagusiak, planaren profila eta bete beharreko premia publiko eta sozialak.

Bigarren une batean, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak lantalde bat jarri zuen martxan zuzendaritzari atxikitako zerbitzuekin eta plana egiteko garaian laguntza eman behar zuen idazkaritza teknikoarekin. Talde horren hasierako egitekoa diagnosiak egitea izan zen, esku-hartzearen esparrua mugatzeko alde aurreko diagnosiak, alegia:

1. Aurrekariak aztertu eta aurreko planak ebaluatzea (ezarpena eta egitura),
2. EAEko migrazio-fenomenoaren gizarte-testuinguru orokorrari eta berariazkoari buruzko txostena,
3. EAEko immigrazio-arloko politika publikoen mapa,
4. EAEko arauen eta eskumenen esparrua aztertzea,

5. Estatuko, Europako eta nazioarteko beste hainbat plangintza-prozesuren azterketa konparatua.

Egindako diagnosien osagarri, eskaeraren nondik norakoak jasotzeko prozesuari ekin zitzaion. Helburu nagusia lan-arlo horretan dauden premiak mugatzea izan da, metodologia parte-hartzailean oinarrituta inplikaturako agente guztiekin (Stakeholders).

<b>PARTE-HARTZEA ESKAERAREN NONDIK NORAKOA JASOTZEKO PROZESUAN</b>		
Stakeholders	Bilera kopurua	Parte-hartzaile kopurua
Udalerrietako immigrazioko teknikariak	Bilera 1	13
Immigrazio Foroaren Batzordeak	8 bilera	49
Harresiak Apurtuz	3 bilera	29
Adituen – akademikoen taldea	Bilera 1	9
Etorkinen taldeak	Bilera 1	20
<b>GUZTIRA</b>	<b>17</b>	<b>120</b>

Eskaeraren nondik norakoak jasotzeko eta diagnosiak egiteko prozesua amaitutakoan, programazioaren ardura zuten agenteekin lanean hasi zen, hau da, plana egiten inplikaturako dauden Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eta organismo guztiekin.

Prozesuari ekiteko deialdi ireki bat egin zuten (sail arteko batzordeen bitartez) Jaurlaritzako teknikariei eta arduradun politikoei zuzenduta, plana egiteko prozesuaren berri emateko asmoz, baita proiektu eta ekintzak definitzeko prozesuari hasierako emateko beharrezkoak ziren prozedurak eta lan-materialak transmititzeko ere.

**SAILEN PARTE-HARTZEAREN KOADROA**

<b>KULTURA SAILA</b>	Gazteria Zuzendaritza Kultura Sustatzeko Zuzendaritza Hizkuntza Politika
<b>HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA</b>	Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza Lanbide Heziketako Zuzendaritza Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza.
<b>ENPLEGUA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA</b>	Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Lanbide
<b>HERRIZAINGO SAILA</b>	Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza Ertzaintzaren Zuzendaritza
<b>JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA</b>	Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza Giza Eskubideen Zuzendaritza Justizia Zuzendaritza
<b>JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA</b>	Kanpoan diren Euskal Herritartasuntzako eta Gizataldeentzako Zuzendaritza
<b>OSASUN ETA KONTSUMO SAILA</b>	Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza Droga Gaietako Zuzendaritza
<b>ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA</b>	Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza
<b>OSAKIDETZA</b>	
<b>OSALAN</b>	
<b>EUSTAT</b>	
<b>EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea</b>	

Batzorde politikoa eta teknikoa bildu ostean, laneko gune pertsonalizatuak (Saileko Batzordeak) zabaldu ziren eta Zuzendaritza bakoitzean eragina izango duten helburuak definitu zituzten, baita plangintza berri honetan txertatu beharreko immigrazio-arloko proiektu zehatzak ere.

Zeharkako plangintza izaki, Jaurlaritzaren Sailek garatu beharreko berariazko jardunak bildu dira bertan. Ildo beretik, eta bultzatu beharreko ekintzen identifikazioaren osagarri, plangintza osatzeko prozesuan zuzen-zuzenean eta zorrotz lan egin da immigrazioaren gaiarekin, herritarrekin eta kultura-bizikidetasunarekin loturiko beste plangintza batzuekin; honako hauekin, hain zuzen: 2011-2013 aldiko Enpleguaren Euskal Estrategia; Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2010-2014; EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako V. Plana; Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jarduteko Plana, III. Lanbide Heziketako Euskal Plana; Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana eta EAEko Osasun Plana 2012-2020.

Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategiari (Ecoeuskadi 2020) dagokionez, Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Plan hau estrategia horrekin loturik eta oso hurbil dagoela aipatu behar dugu, bereziki, "Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea" 2. helburu

estrategikoko eta, hain justu, 13. jarduera-ildoko tresna moduan, “Langile etorkinen eta haien familien integrazioa erraztea –kultur integrazioa barne–, etorkinen hezkuntza-arloko desabantailaren gainean eraginez” lortu nahi baitu.

Sailen programazio-materialak landu ostean, definitutako programa-ekintzei onespun politikoa eman behar zaie eta landutako zirriborro guztiak kontrastatu. Puntu horretan, Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak egin dituen ekarpenak eta azterketa-lan garrantzitsua nabarmendu nahi dugu.

### LANTZE PROZESUAREN LABURPEN KOADROA (gertakari garrantzitsuenak)

Foroaren Osoko Bilkura	2010eko abenduaren 17a
Planaren oinarritzko orientabidea	2011ko urtarrila
Foroaren batzordeak: eskaeraren nondik norakoa jasotzea	2011ko otsaila
Udal-teknikarien sarea: eskaera igartzea	2011ko otsaila
Taldeak, Harresiak Apurtuz: eskaera igartzea	2011ko martxoa
Sailen arteko I. Batzorde Politikoa	2011ko otsailaren 23a
Sail arteko I. Batzorde Teknikoa	2011ko martxoaren 7a
I. zirriborroa egitea	2011ko maiatza
II. zirriborroa egitea	2011ko ekaina
Ekarpenak egitea	2011ko ekaina-iraila
Behin betiko dokumentua egitea	2011ko iraila
Foroaren Osoko Bilkura	2011ko iraila
Onartze-prozesua	2011ko azaroa





# ESKU-HARTZEAREN ESPARRU TEORIKOA

## SARRERA

Giza mugikortasuna gure mundu globalizatuaren egiturazko ezaugarrietako bat da. Eta Euskadira ere iritsi da fenomeno hori. Azken urteotan, hainbat herrialdeetatik etorkin asko iritsi direnez, EAeko plaza eta kaleetako aurpegiak aldatu egin dira. Jatorri eta osaera anitzeko gizartea izaki, euskal gizartearen aniztasuna areagotu egin da immigrazioaren eraginez. Gaur egun, EAeko biztanleriaren % 6,6 atzerritarrak dira eta ehuneko hori % 8,2ra igotzen da jatorriz atzerritarrak izanik azken urteotan nazionalitate espainiarra lortu dutenak kontuan izaten baditugu. Gure gizartean bizikidetasunaren erronkak beti izan du garrantzi handia baina, orain, xehetasun eta dimentsio berriak hartu ditu immigrazioa dela-eta.

Immigrazioaren fenomenoari aurre egiteko, administrazioek eta gizarteak, oro har, gizarte-kohesioa sustatzera eta integrazioa bideratutako estrategiak landu behar dituzte. Gizarte-integrazioa elkar egokitzeko eta moldatzeko prozesua da eta gizartea osatzen duten pertsona guztiak hartzen ditu eraginpean, ez soilik iritsi berriak. Ildo beretik, gure ustez integrazioa prozesu bat da, etorkinak gizartean —euskal gizartean, kasu honetan— erabat, libreki eta modu autonomoan txertatzeko prozesua. Integrazio-prozesuan mugimendu hirukoitza gertatzen da: etorkinek esfortzua egin behar dute, euskal gizarteak egokitzeko lana egin behar du eta politika publikoen bidez prozesu hori gauzatzeko bultzada eta laguntza emateaz gain, gauzatzen dela egiaztatu behar da. Horrek esan nahi du politika horren funtsezko osagaietako bat erantzunkidetasuna dela. *2011-2013 aldiko Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planaren* dokumentu hau da horretarako dugun tresna.

Integrazioaren ideia horren alde lan egiteko *Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planaren* abiapuntua herritartasun inklusiboaren kontzeptua da. Integrazio-politikaren bidez gizarte inklusiboa lortu nahi da, gizartea osatzen laguntzen duten pertsona guztiek aukerak berdinak izanik eta haiek ere gizartearen erantzule badirela sentituz, eskubide eta betebeharrekin. Gure ustez ezinezkoa da egiaz integratzea bertan bizi direnei herritar direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien titular direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe. Ildo beretik, Herritartasun kategorian sartu behar dira Komunitatean dauden pertsona guztiak, baldin eta komunitateko kide izan nahi badute eta gure gizartearekin loturiko bizi-proiektu bat badute. Etorkinak biztanle iraunkorrek dira, ez aldi baterako langileak; horrekin loturik dago aurreko ideia hori. Gizartearen eta herrialdearen etorkizunean jada inplikaturik dauden herritarrak dira. Alderdi hori planaren izenean bertan adierazi nahi izan da, “Herritartasun” hitza sartuta.

Azken hamar urteotan, atzerritarren fluxu handia eta bizia iritsi da EAera; urte horietan, Espainia osoan migrazio-fluxu oso garrantzitsua gertatu da. Hala ere, gaur egun, beste migrazio-ziklo bat bizitzen ari garela esan behar dugu: atzerritarrak iristeko erritmoa nabarmen mantsotu da eta datozen urteotan joera horri eutsiko zaiola aurreikusten da. Dena den, epe ertain eta luzera, ia inork ez du zalantzan jartzen

etorkinen mugimendua ezinbestekoa izango dela Europa osoan aurreikusi diren desoreka demografikoei aurre egiteko.

Testuinguru horretan, garai berri honetan ezinbestekoak diren hainbat orientabide partikular nabarmenduko ditugu Planean. Jarraian, plan honetan nabarmendu nahi ditugun puntuetako bi aipatuko ditugu.

- Lehenik, aurreko hamarkadan ez bezala, gizartearen eta erakundeen esfortzuak harrerara baino gehiago, integrazioa eta bizikidetasunera bideratu behar du. Zalantzarik gabe, harrera garrantzitsua izango da oraindik ere, baina une honetan gizarte-integrazioan jarri behar ditugu indar guztiak. Horretarako, integrazteko bide nagusiak enplegua eta hezkuntza dira, alde batetik, eta, bestetik, zerbitzu publikoek aniztasuna kudeatzeko eta Herritartasun diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna bermatzeko duten gaitasuna. Immigrazioaren seme-alabak gizarte batekin identifika daitezzen eta, beraz, etorkizuneko gizarte-kohesioa lortzeko, oso garrantzitsuak dira gizarte horrek eskaintzen dituen prestakuntza-aukerak, eta familiak gizartearen aldetik izan duen tratua. Horregatik, hain justu, sartu dugu "kultura-bizikidetasuna" esamoldea planaren izenean, euskal gizartean, gizarte plural eta askotariko honetan "elkarrekin bizitzeko" premiari garrantzia eman behar zaiola nabarmentzeko, betiere gizarte-kohesioa bermatzearen.
- Bigarrenik, erakunde barruko eta arteko egituraren premia dagoela uste dugu: euskal immigrazio-politika orain arteko Immigrazioari buruzko bi Euskal Planetan oinarritu izan da. Bi plan horien bidez, lehenik, etorkinak integrazteko harrera-lanean gobernuak eta erakundeek bete beharreko eginkizunari buruz kontzientziatzea lortu da; eta bigarrenik, printzipio, helburu eta tresnen arabera egituratzea. Immigrazioarekin loturiko politika publikoaren lehen fasea amaituta, orain politika horien heldutasun-fasean sartu garela esan dezakegu, eta fase horretan ezinbestekoa da integrioko eta bizikidetasuneko politika publikoaren gobernantzaren erakunde-arkitektura egituratu eta egonkortzea, bai Eusko Jaurlaritzan, baita erakunde arteko dimentsioan ere, Foru Aldundi eta udalekin, baita arlo horretan garrantzitsuak diren beste gizarte-eragile batzuekin ere. Immigrazioarekin loturiko euskal politikan hobetu beharreko alderdi nagusietako bat hauxe da: hainbat erakunderen lidergo partekatua ahalbidetzeko tresna egituratuak indartzea.

## XEDEA

*Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Euskal Plana* esku-hartze publikoa koordinatzeko tresna da, immigrazioari, bizikidetasunari, aniztasunaren kudeaketari eta kulturartekotasunari dagokienez. Hona hemen helburuak: Jaurlaritzaren ekintza bideratu eta egituratzea Euskadiko immigrazioaren fenomenoarekin loturiko alderdi guztietan, eta EAEn bizi diren etorkinen integrazio eta bizikidetasunarekin loturiko alderdietan, Jaurlaritzaren sailletako ekintzak koordinatuz.

## IKUSPEGIA

Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Euskal Politikak markatzen du Jaurlaritzaren ekintza epe luzera norantz bideratzen den eta erabaki estrategikoak bideratzeko orientabide eta eragingarri ere izaten da, euskal gizarte kohesionatua lortzearen, EAEn bizi diren pertsona guztiak herritar-eskubide guztiak berdintasunean baliatzeko aukera izanik, eta Euskadi osatzen duten pertsona eta kultura guztien aniztasuna kudeatu eta onartuta. Horretarako, erakunde-sistema egituratua dago, baita gobernantza parte-hartzailea ere.

---

## PRINTZIPIO OROKORRAK

### **1. Berdintasuna eta Giza Eskubideak**

Berdintasun-printzipioak giza eskubideen titulartasuna al bait zabalen izatea dakar, EAEn dagozkion eskumenen eremuan. Eta eskubide zibilez ez ezik, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko eskubideez ere ari gara eta bertan bizi diren guztientzat orokortzen dira eskubide horiek, haien nazionalitatea kontuan izan gabe; eskubide politikoez ere mintzo gara, Erkidegoaren ordenamendu juridikoan txerta daitezkeen neurrian. Bestalde, eskubide eta betebeharren berdintasun formalarekin batera, berdintasuna sustatzeak bi alderdi biltzen ditu: alde batetik, tratu berdintasuna, eskubideen bazterketa eta diskriminazio mota oro debekatuz pertsonen ezaugarri fisikoak, ideia, kultura, sexu-

orientazioa, posizio ekonomikoa eta abar direla-eta; eta bestetik, aukera-berdintasuna, pertsona guztiek gizartean aukera berdinak izateko eskubidearekin eta ekitatearekin loturik, aurreiritzi errotuen eraginpean dauden talde jakin batzuen gizarte-desabantailako egoera orekatzeko neurriak hartzeko aginduz botere publikoei. Hiru berdintasun horiek —eskubidea parekatzeko berdintasuna, tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna— ezinbestekoak dira gizarte-kohesioa lortzeko. Horretaz gain, bata bestearen osagarri izaki, hirurak lagungarri dira bi faktore garrantzitsu nabarmentzeko: diskriminazio bikoitzen edo anizkunen kasua (emakume etorkinak, esaterako) eta egoerak ez bereiztearen ondoriozko diskriminazio posibleen kasua.

Azkenik, *Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Plana* giza eskubideetan oinarritzen da, ezinbestean.

## **2. Kultura-aniztasuna**

Gaur egungo gizarteak askotarikoak eta pluralak dira, eta gizarte-errealitate hori aukeratzat eta erronkatzat har daiteke, aldi berean. Aukerari erreparatuta, konturatuko gara gizarte aberatsenak askotarikoenak direla. Erronkari dagokionez, aniztasuna modu inklusiboan kudeatzeko tresnak eta printzipioak eskuratu behar ditugu, aniztasun hori esfera publikoan onartu eta egokitu dadin bultzatuz, bai erakundeetatik, bai gizarte-erakundeetatik. Aniztasunaren kudeaketa inklusiboan desberdintasunak onartu eta errespetatu egin behar dira eta, aldi berean, elkarren arteko lotura, elkarriketa kritikoa eta interakzioa bilatu, oinarrizko balio partekatuetan oinarrituta. Interakzio horren eraginez, kultura-errealitate berriak sortzen dira, gizartearen egoera eta gizabanakoak aldatzen dituzten errealitateak. Ildo beretik, konfiantza eta jakintza indartu nahi dira herritar guztien artean, giro integratzailea lortzen laguntzeko errespetua eta elkar aberastea abiapuntu hartuta.

## **3. Genero-ikuspegia**

*Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planean* genero-ikuspegia kontuan izan da. Emakume etorkinek diskriminazio bikoitza jasan dezakete emakume eta etorkin diren aldetik, edo anizkuna, beste zirkunstantzia batzuk ere gehituz gero. Diskriminazio horrek areagotu egiten ditu emakume horien zailtasunak, euskal gizartean erabat integratzeko garaian.

Genero-harreman berrien bultzadarekin eraiki behar dugu gure gizartea, bertan emakume etorkinek dagozkien eskubide eta betebeharrak guztiak izan ditzaten. Ildo beretik jarraiki, genero-nortasun bikoitza negoziatu behar da.

## **PRINTZIPIO OPERATIBOAK**

### **1. Normalizazioa eta unibertsalizazioa**

Etorkinen premiak guztion premia komunak dira; beraz, herritarrei, oro har, zuzendutako zerbitzu orokorren bidez bete behar dira. Normalizazioak esan nahi du biztanleria guztia, oro har, atxikitzen zaiela gizarte-arloko baliabide eta zerbitzuei, baldintza berdinetan eta prozedura berdinen bitartez. Hortaz, integrazio-jardunak biztanleria osoari zuzenduta daude, ez soilik etorkinei. Hartara, euskal gizartearen aniztasuna normaltasun-planteamendu batetik abiatuta kudeatzen da, zerbitzu espezifikorik behar izan gabe. Hala ere, integrazio-prozesuetako une jakin batzuetan, premia espezifikoak zerbitzu espezifiko iragankorren bidez bete ahal izango dira, salbuespen gisa eta modu subsidiarioan.

### **2. Zeharkakotasuna**

Integrazioko, Herritartasun eta kultura arteko bizikidetasuneko politikak zeharka txertatu behar dira herritarrei zuzendutako politika publiko guztietan. Integrazio-politika politika publiko bertikal guztietan (hezkuntza, enplegua, etxebizitza, kultura, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta abar) gauzatu behar da. Hortaz, Jaurilaritzaren Sail guztiek baterako hausnarketa egin beharko dute eta hainbat neurri ezarri beharko dituzte aniztasunaren testuingurura egokituta. Zeharkakotasunak esan nahi du integrazio-politikaren ardura duen zuzendaritza-unitateak (kasu honetan, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak) ez dituela kudeatuko bere zerbitzuak, baizik eta politika bertikalak indartzeko, horiei laguntzeko, informatzeko eta horiengan eragiteko tresnak eta mekanismoak eskura izango dituela.

### **3. Lidergo partekatua erakundeen artean eta subsidiariorotasuna**

Lidergo partekatua zera da, Herritartasun eta immigrazioaren politiken kudeaketan inplikaturako administrazioen artean koordinatu eta egituratzea, organo egonkorren bidez. Lankidetzaren horri esker bikoiztasunak saihestu eta eraginkortasun handiena bermatuko da helburuak betetzeko eta baliabideak modu eraginkorrean baliatzeko garaian. Gertutasuna eta subsidiariorotasuna dira integrazio-politikaren oinarritzko printzipioak. Etorkinak gizartean txertatzea, gizarteratzea eta bizikidetasuna, batik bat, maila publikoan gertatzen dira eta erakundeei dagokie horiek kudeatu eta garatzea.

### **4. Gobernantza parte-hartzailea**

Botere publikoen erantzukizun izaki, integrazioko eta kultura arteko bizikidetasuneko politika publikoak formulatu, gauzatu eta diseinatzeko garaian gizarte zibilaren eta gizarteko elkarten parte-hartzea eta

erantzukidetasuna ezinbestekoak dira. Horren ondorioz, botere publikoek ahalik eta partaidetzagunerik zabalenak bermatu behar dituzte eta horien funtzionamendua ahalik eta modu eraginkorrean diseinatu.

---



# EAEko MIGRAZIO FENOMENOAREN DIAGNOSI OROKORRA



## 1. AURKEZPENA

Nolakoa da Euskadiko immigrazioaren “argazkia” 2011. urtean? Atal honetan, migrazioaren fenomenoak Euskal Autonomia Erkidegoan —EAEn, aurrerantzean— dituen ezaugarri eta datu nagusiak aztertuko ditugu. Horretarako, EAEn kolektibo horri buruz dauden datu sozio-demografiko nagusiak aztertuko ditugu.

Lehen zatian, EAEn erroldatuta dauden atzerritarrei buruzko datuak aztertuko ditugu eta beste Autonomia Erkidego batzuetako zifrekin konparatuko ditugu; egoitza-baimena dutenez ari gara.

Bigarren kapituluan, EAEko etorkinen kolektiboaren ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu labur eta zehatz, eta erroldako datuak ez ezik, egin berri den EAEn bizi diren Atzerriko Etorkinen gaineko Inkestako —AEI 2010— informazioa ere erabili dugu.

Txostenaren hirugarren eta laugarren zatian enpleguarekin eta hezkuntzarekin loturiko alderdiak aztertuko ditugu, hurrenez hurren, gaur egun bi gai horiek nabarmentzen baitira, bereziki, fenomeno horrek dituen gako edo erronka nagusiak aipatzean. Lan-merkatuari dagokionez, AEI 2010 inkestako datuak aurkeztuko ditugu, baita Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzkoak ere. Hezkuntzaren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailburuordetzak ikasle atzerritarrei buruz eskaintzen dituen hainbat datu aztertuko ditugu, lehen aipatu dugun inkestako datuekin batera.

Bosgarren kapituluan, 2011ko azken barometroko datu nagusiak aurkeztuko ditugu; Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiak urtero egiten du inkesta hori eta biztanleria autoktonoaren iritzia eta jarrerak aztertzen dira, migrazio-fenomenoari dagokionez. Horrekin batera, etorkinen kolektiboaren diskriminazio-pertzepzioan eta integrazio-mailan eragiten duten datuak ere emango ditugu AEI 2010 inkestatik.

Azkenik, eta txostena bukatzeko, EAEn migrazio-fenomenoak dituen ezaugarri nagusiak bilduko ditugu eta hainbat hausnarketa egingo ditugu horren inguruan, egun bizi dugun lan-arloko eta ekonomiaren arloko krisialdia eta horrek immigrazioan duen eragina kontuan izanik, baina datozen urteetarako egun aurreikus daitezkeen etorkizuneko erronkak eta itxaropenak ere nabarmenduko ditugu.

Sarrera hau amaitzeko, erabili ditugun iturriei eta metodologiari buruzko hainbat argibide emango ditugu. Lehenik, erroldako 2011. urteko datuak behin-behinekoak dira; beraz, behin betikoak aurkezten dituztenean aldatu egingo dira.

Bigarrenik, bai 2010eko AEI inkesta, bai 2011ko Barometroa, datuak ustiatzeko prozesuan sartuta daude bete-betean. Horregatik, txosten honetan sartu ditugun datuak behin-behinekoak dira eta, horretaz gain, presaka egindako azterketaren ondorio dira; izan ere, datu horiek aztertzeko oso denbora gutxi izan dugu.

Hirugarrenik, datu gehienak atzerritarrei buruzkoak dira. Gero eta etorkin gehiagok lortzen du nazionalitate espainola eta ez dira estatistiketan agertzen, baina etorkin dira hala ere. 2010eko AEI inkestan

atzerritarrak eta beste herrialdeetatik datozenak biltzen dira; beraz, gure inguruko migrazio-errealitatea argiago jasotzen du. Ildo beretik, eta etorkizunari begira, egoera ezberdin horiek neurtzeko aldagaiak finkatu beharko lirateke; izan ere, nazionalitateen kopurua gero eta handiagoa izaki, atzerritar aldagaiak migrazioaren icebergaren zati gero eta txikiagoa osatzen du, ikusteko moduko errealitate bakarra izanik ere. Era berean, eta, batik bat, hezkuntzaren arloko datuei dagokienez, atzerritarren semea edo alaba izatearen aldagaia txertatu beharko da, bestela oso zaila izango da hezkuntza-sisteman bigarren belaunaldien ibilbideak sakon aztertzea.

Azkenik, zera aipatu behar dugu, erabili ditugun iturrietako datu berrienak ez datozela beti bat. Nolanahi ere, txosten honetan aurkeztu ditugun datu eta taula guztietan datak zehaztuko ditugu, nahasterik sor ez dadin.

## 2. EAE ESTATUKO TESTUINGURUAN

### 2.1. EAEn bizi diren pertsonak (errola)

EIN Estatistika Institutu Nazionalaren behin-behineko datuen arabera, EAEn 144.551 atzerritar daude erroldatuta, hau da, biztanleria guztiaren % 6,6. 1998. urtetik hona, atzerritarren kopurua zortzi eta erdi aldiz gehiago handitu da eta horregatik izan ez balitz, EAEn bizi diren biztanleen kopuruak behera egingo zukeen, biztanleria autoktonoa % 2,1 murriztu baita aldi horretan.

EAEn bizi diren Atzerritar Etorkinei buruzko 2010eko Inkestako datuak erroldako datuen osagarri dira, atzerriko biztanleriaren datuak ez ezik, beste herrialde batean jaio diren biztanle autoktonoenak ere jasotzen dituelako. Hori horrela izanik, eta inkesta horren arabera, EAEn 179.582 pertsona bizi dira jatorriz atzerritarrak direnak (biztanleria guztiaren % 8,2).

#### 1. taula. Biztanleriaren bilakaera EAEn. 1998-2011.

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	Hazk. %
Guztira	2.098.628	2.100.441	2.098.596	2.101.478	2.108.281	2.112.204	2.115.279	2.124.846	2.133.684	2.141.860	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.183.615	4,0
Autoktonoak	2.083.430	2.083.648	2.077.456	2.074.040	2.069.873	2.062.973	2.056.113	2.051.952	2.048.142	2.043.336	2.039.775	2.039.310	2.038.970	2.039.064	-2,1
Atzerritarrak	15.198	16.793	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	117.337	132.865	139.369	144.551	851,1
Atzerritarren %-a	0,7	0,8	1,0	1,3	1,8	2,3	2,8	3,4	4,0	4,6	5,4	6,1	6,4	6,6	5,9

Iturria: Geuk egina, EINeko datuetatik abiatuta.

Estatuko testuinguruan, EAeko atzerritarren ehunekoak beste Autonomia Erkidego batzuetakoa edo Estatuko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da, % 12,2 baita. Ildo beretik, eta 2. taulan ikus daitekeenez, migrazio-fluxuek bi joera dituzte egonkortzeari dagokionez. Alde batetik, Mediterraneo inguruko AEak, Ebro ibaiaren arroa eta Madril aipatuko ditugu; horietan atzerritarren ehunekoak batez bestekoaren gainetik dago eta, termino absolututan ere, AE garrantzitsuenak dira. Bestetik, Kantauri aldeko AEak eta penintsularen barrualdekoak; kasu horietan ehunekoak txikiagoak dira eta etorkinak erakartzeko ahalmena ere txikiagoa da.

Banaketa desorekatu hori bat dator, hein batean, tokian tokiko lan-premiekin eta lan-merkatuarekin. Izan ere, lan-arloan nekazaritza, eraikuntza edo turismoa nagusi diren AEetan atzerritar gehiago daude. Sektore horiek ekonomian duten garrantzia txikiagoa den AEetan atzerritarren ehunekoa ere txikiagoa da. Halaber, ezin dugu ahaztu, bereziki, Mediterraneoko arkuan dauden AEetan beste migrazio mota bat ere izaten dela Espainiako ekonomiaren lan-eskariarekin lotutako migrazioaz gain; hain zuzen ere, inguru turistikoetara datorren migrazioa, gehienbat Europatik eta adinekoak. Balear Uharteetan edo Valentzian oso nabaria da dinamika bikoitz hori.

AE baten barruan ere suma daitezke horrelako aldeak. Esaterako, Andaluzian, zenbait probintzian atzerritarren ehunekoa oso handia da (Almeria % 22,1 eta Malaga % 17,4), baina beste batzuetan oso txikia (Kordoba % 3,2 edo Jaen % 3,3). EAEn kasuan, barne-alde horiek ere atzeman daitezke, ez hain modu nabarmenean: Gipuzkoan eta Bizkaian % 6,2ko ehunekoa dute eta Araban % 9. Izan ere, Araban nekazaritzak garrantzi handiagoa du.

2. taula. Espainiako biztanleria guztira eta atzerritarra AEaren arabera. 2011

	Guztira	Atzerritarrak	Atzerritarrak %
Balearrak	1.112.712	242.578	21,8
Valentzia	5.111.767	877.678	17,2
Madril	6.481.514	1.062.026	16,4
Murtzia	1.469.721	240.749	16,4
Katalunia	7.535.251	1.182.957	15,7
Kanariar Uharteak	2.125.256	606.307	14,4
Errioxa	322.621	46.084	14,3
Aragoi	1.345.132	170.421	12,7
<b>Espainia</b>	<b>47.150.819</b>	<b>5.730.667</b>	<b>12,2</b>
Nafarroa	641.293	71.380	11,1
Gaztela-Mantxa	2.113.506	231.810	11,0
Andaluzia	8.415.490	727.176	8,6
Gaztela eta Leon	2.555.742	171.554	6,7
<b>Euskadi</b>	<b>2.183.615</b>	<b>144.551</b>	<b>6,6</b>
Kantabria	592.560	38.863	6,6
Asturias	1.081.348	50.310	4,7
Galizia	2.794.516	109.994	3,9
Extremadura	1.108.140	41.460	3,7

Iturria: Geuk egina, EINEko datuetatik abiatuta.

Erroldako datuekin amaitzeko, jarraian, azken urteko atzerritarren hazkundeari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Azken urteotan lehen aldiz, atzerritarren kopuruan beherakada izan da Estatuan eta hainbat AEtan, 3. taulan ikus daitekeenez. Hori horrela izanik, atzerritar gehien dauden AEetan badirudi nahikoa atzerritar badagoela; eta, aldiz, hainbeste atzerritar ez dauden AEetan badute tokirik oraindik, antza. Testuinguru horretan, ez da harrizkoa EAEn atzerritarren kopuruak gora egitea eta, azken urtean, kopuru hori termino erlatibotan gehien handitu duen bigarren AEa izatea, Extremaduraren atzetik; ez da harrizkoa, halaber, Gipuzkoako eta Bizkaiko hazkundera handiagoa izatea Arabakoa baino.

3. taula. Espainiako atzerritarrak AEaren arabera 2010-2011 eta urte arteko hazkundera.

	2011	2010	Hazk. 2011-2010
Espainia	5.730.667	5.747.734	-0,3
Andaluzia	727.176	704.056	3,3
Aragoi	170.421	173.086	-1,5
Asturias	50.310	49.286	2,1
Balearrak	242.578	242.256	0,1
Kanariar Uharteak	306.307	307.379	-0,3
Kantabria	38.863	39.201	-0,9
Gaztela eta Leon	171.554	169.498	1,2
Gaztela Mantxa	231.810	229.554	1,0
Katalunia	1.182.957	1.198.538	-1,3
Valentzia	877.678	893.759	-1,8
Extremadura	41.460	39.356	5,3
Galizia	109.994	109.670	0,3
Madril	1.062.026	1.079.944	-1,7
Murtzia	240.749	241.865	-0,5
Nafarroa	71.380	71.369	0,0
<b>Euskadi</b>	<b>144.551</b>	<b>139.369</b>	<b>3,7</b>
Extremadura	1.108.140	41.460	3,7
Araba	28.641	28.210	1,5
Gipuzkoa	43.498	42.449	3,5
Bizkaia	71.962	68.710	4,7
Errioxa	46.084	46.680	-1,3

Iturria: Geuk egina, EINEko datuetatik abiatuta.

## 2.2. Egoitza-baimenak

Erroldako datuak eta baimenen datuak alderatuta egoitza-baimena dutenen ehunekoaren gutxi gorabeherako kalkulua egin dezakegula onartuz gero, azken urteotan indize horretan hobekuntza nabarmena gertatu dela ikusiko dugu. Hori horrela, 2011. urtean erregularizazio-tasa % 80,1 da. Datu hori berretsi egingo dugu 2010eko Atzerritar Etorkinei buruzko Inkestako datuei erreparatuz gero, % 82,2 dela baitio. Inkesta horretan bertan, irregulartasuna % 13,2 dela agertzen da, 2007ko Ikuspegiaren inkestan agertzen zen % 22,8ren azpitik; beraz, kolektiboaren egoera administratiboa, oro har, hobetu egin dela esan dezakegu.

Hori horrela izanik, atzerritarren erdia inguru egoera administratibo irregularrean zegoen garai batetik (2002-2005 urteak) abiatuta, erregularizazio-tasa gero eta handiagoa da gaur egun, eta zenbait AEtan, % 100 ingurukoa ere bada, Errioxan edo Aragoian, kasu. Hazkunde horretan eragina izan dute bi faktorek, argi eta garbi. Bata 2005. urtean egin zen ezohiko erregularizazio-prozesua; horren ondorioz, urtebeteko epean % 51tik % 67,1era igo zen indizea. Bestea gizartean sustraitzeko bidea, egoitza-baimena lortzeko; horri esker, atzerritar askok egoitza-baimena lortu ahal izan du, baina mantsoago.

4 taula.

EAEen erroldatuta dauden eta egoitza-baimena duten atzerritarren bilakaera. 1998-2011.														
	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Erroldatuta	15.198	16.794	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	116.650	132.865	139.369	144.551
Baimena	15.647	16.995	18.622	18.822	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875	96.635	106.658	115.838
Baimena %	103,0	101,2	88,1	68,6	50,8	49,2	48,3	51,0	67,1	65,2	71,9	72,7	76,5	80,1

Iturria: Geuk egina, EINEko eta Lan eta Inmigratioko Ministerioko datuetatik abiatuta.

Nolanahi ere, elementu garrantzitsuena egonaldiaren iraupena da, gizarte-sustraitzearen aukeran ere eragiten duela. Hori horrela, migrazio-fluxuak lehenago gertatu diren AEtan erregularizazio-tasa handiagoa da fluxu hori azken urteetan gertatu den AEtan baino, eta hori ez da halabeharrez gertatu. Izan ere, lehen aipatu dugun EAEko % 80,1 hori Estatuko mailarik txikienetakoa da, batez bestekoa % 86 baita.

Era berean, nazionalitatearen arabera egonaldiaren iraupena aldatu egiten da eta horrek ere asko aldatzen du erregularizazio-tasa batetik bestera. Badira zenbait kasu % 100 inguruko edo gehiagoko erregularizazio-tasak dituztenak (anomalia estatistikoaren ondorioz), baina beste hainbat kasutan ehuneko oso txikiak ikus daitezke; hala nola Bolivia, Paraguai edo Nikaragutatik etorritakoen kasuan. Herrialde horietatik azken urteotan hasi dira etortzen eta ez dute izan nahikoa denbora egoitza-baimena eskatu eta lortzeko.


5. taula. EAEn erroldatuta dauden eta egoitza-baimena duten atzerritarrak, nazionalitate garrantzitsuenen arabera. 2010.

	Erroldatzeak	Baimenak	Err./Baim.
Guztira	139.229	106.658	76,6
Errumania	15.290	15863	103,7
Maroko	14.386	11.473	79,8
Kolonbia	12.794	12.551	98,1
Bolivia	12.062	5.438	45,1
Portugal	9.365	8.872	94,7
Ekuador	7.374	7.815	106,0
Brasil	5.796	2.924	50,4
Aljeria	4.673	2.653	56,8
Paraguai	4.630	1.214	26,2
Txina	4.319	3.961	91,7
Peru	3.247	3.272	100,8
Argentina	2.975	2.089	70,2
Senegal	2.601	1.353	52,0
Italia	2.296	1.824	79,4
Frantzia	2.261	1.439	63,6
Nikaragua	2.254	428	19,0
Pakistan	1.974	1.281	64,9
Venezuela	1.951	1.160	59,5
Dominikar Errepublika	1.917	1.708	89,1
Kuba	1.910	1.811	94,8

Iturria: Geuk egina, EINEko eta Lan eta Inmigratioko Ministerioko datuetatik abiatuta.

Egoitza-baimenekin amaitzeko, esan behar dugu baimenen kopuruan ez ezik, iraupenean ere hobera egin dugula eta, beraz, baita baimen horien kalitatean ere. Baieztapen hori ikusteko, 2006. eta 2010. urteetako egoitza-baimenak hartu ditugu, hasierakoak eta iraunkorrak, eta mota bakoitzaren garrantzi erlatiboa aztertu dugu —1. grafikoa—. Baimen iraunkorrak egonkortasun handiagoa ematen dio egonaldiari; hori kontuan izanik, 2006. urtean baimen iraunkorrak % 9,54 ziren eta 2010ean % 33,7. Era berean, hasierako baimena mugatuena da denboraren aldetik, legez urtebete egoteko baimena ematen baitu; horri buruz, 2006an baimen horiek % 40,11 ziren eta 2010ean % 19,08. Datu horiei erreparatuta, baimenen iraunkortasuna nabarmen hobetu dela ikus dezakegu.

1. grafikoa. Egoitza-baimenen —hasierakoak eta iraunkorrak— bilakaera EAEn. 2006 eta 2010.



Iturria: Geuk egina, Lan eta Inmigratioko Ministerioiko datuetatik abiatuta.


### 3. ETORKIN KOLEKTIBOAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Etorkinen kolektiboaren ezaugarriak (baita biztanleriaren guztirakoan duen garrantzi erlatiboa ere) lurralde batean edo bestean nagusi diren lan-merkatuaren eta lan-nitxoaren premien eta ezaugarrien arabera izaten dira. Atal honetan ikusiko dugun moduan, EAEn ere gertatzen da hori.

Nabarmendu beharreko lehen ezaugarria kolektiboaren gaztetasuna da, batik bat, biztanleria autoktonoarekin alderatuta. Izan ere, atzeritarren % 68,6k 16-44 urte ditu eta % 84k 44 urte baino gutxiago. Kontrako muturrean, 44 urtetik beherako autoktonoek % 50,2 osatzen dute. 65 urtetik gorakoei buruzko datua ere interesgarria da: atzeritarren kasuan % 1,8 baino ez dira eta autoktonoen artean % 20,8; beraz, alde handia dago hainbat gai kontuan hartzen baditugu, hala nola osasun-arloko gastua, mendetasuna edo Gizarte Segurantzaren pentsioak.

Bestela esateko, atzeritarren artean gehiengoa lan egiteko adinean dago eta horren ondorioz jarduerataza biztanleria autoktonoarena baino zertxobait handiagoa da. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren kasuan, 2011ko lehen hiruhilekoan ia 20 puntuko aldea dago atzeritarren alde (% 75,87 eta % 57,65, hurrenez hurren). 2010eko AEIaren datuak ere oso antzekoak dira: atzeritarren jarduerataza %75,5 da.

2. grafikoa. EAeko biztanleria autoktonoa eta atzerritarra adin-tarteen arabera banatuta. 2011.



Iturria: Geuk egina, EINEko datuetatik abiatuta.

AEIaren datuak bat datoz, hein handi batean, erroldako datuekin; izan ere, 0-15 urteko taldeak % 16,8 osatzen du, 16-44 urteko taldeak % 64,3, 45-64 urteko taldeak % 17,8 eta 65 urtetik gorakoek % 1,2. Jatorriaren arabera ez dago alde handirik.

Sexuaren arabera, lan-premiak ere garrantzitsuak dira banaketa desorekatu horretan. Eraikuntzak edo nekazaritzak garrantzi handia duen Autonomia Erkidegoetan gizonen garrantzia handiagoa izaten da eta turismoa eta, bereziki, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea nagusi direnetan, aldiz, emakumeak gailentzen dira.

Aldagai hori eta jatorrizko eremu geografikoa lotzea ere interesgarria izaten da, jatorrien artean alde esanguratsuak baitaude. Hori horrela izanik, atzerritarren artean, oro har, sexuen artean oreka dagoela esan dezakegun arren (erroldaren arabera, gizonak % 51,4 eta emakumeak % 48,6 dira; eta 2010eko AEIaren arabera, % 51,6 emakumeak eta % 48,4 gizonak), joera nagusia hau da: nazionalitate latinoamerikarretan emakumea da nagusi eta afrikarretan gizona.

EA Eren kasuan, etorkinen kolektiboan etxeko lanekin eta pertsonak zaintzarekin loturiko sektorea da nagusi, batik bat, Gipuzkoan eta Bizkaian. Horregatik dira nagusi latinoamerikarrak (erroldaren arabera % 42,6 eta 2010eko AEIaren arabera % 46,9) eta Bizkaian etorkin guztien ia erdia osatzen dute. Esan dugunez, eremu geografiko honetan emakumea da nagusi, bereziki, azkenaldian iritsi diren nazionalitateen kasuan; hortaz, oraindik ezin izan dituzte bete familia berriz elkartzeko eskatzen dituzten



baldintza sozial eta ekonomikoak. Adibide bat jartzearren, Paraguaiko etorkinen % 60,9 emakumeak dira 2010eko AEIaren arabera, eta % 71,8 eroldaren arabera.

Nazionalitate garrantzitsuenak aztertuko ditugu jarraian. 90eko hamarkadaren amaieran, EB-12ko nazionalitateak ziren nagusi immigrazioan —esate baterako, Frantzia, Alemania edo Erresuma Batua— baina orain, herrialde latinoamerikarrak edo Errumania dira garrantzitsuenak. Portugal eta Marokoren kasuan, denboran joera luzeagoa izan dute eta 90eko hamarkadaren azken urteetan jada garrantzi handia zuten.

Datu berriagoei helduta, badirudi nazionalitate latinoamerikarren garrantzia murrizten ari dela Errumaniako eta Portugaleko etorkinen aurrean. Eta hori egia da, zati batean, baina kasu horretan kontuan izan behar dugu nazionalizazioen garrantzia askoz ere handiagoa dela latinoamerikarren artean, nazionalitatea lortzeko erraztasun handiagoak dituztelako: bi urte igarota eska dezakete, baina marokoar batek hamar urtez egon behar du zain. Horren ondorioz, latinoamerikarrek ordezkaritza txikiagoa dute erroldako datuetan, atzerritarrei buruzko datuak baino ez dituztelako biltzen, eta 2010eko AEIan ere latinoamerikarrek ehuneko handiagoa dute, nazionalizatuak ere barnean hartzen baitira.

Marokoarren datuak ere interesgarriak dira; 90eko hamarkadaren amaieran bigarren nazionalitate garrantzitsuena zen eta azken urteotan garrantzia galtzen ari zela zirudien, beste nazionalitate batzuen mesedetan. Alabaina, 2010. urtetik aurrera berriz ere gora egin dute marokoarren datuek eta 2011n berriz ere bigarren nazionalitate garrantzitsuena da EAEn, eroldaren arabera. Ibilbide bitxia izan dute marokoarrek; izan ere, bi boladatan iritsi dira: bata hamarkada honen hasieran eta bestea gaur egun. 2010eko AEI inkestan sumatzen da dualtasun hori eta, Magreben kasuan, ehuneko garrantzitsu bat duela 10 urte baino gehiago iritsi da (% 24,6) baina azken 2-3 urteetan ere bai (% 27,5).

6. taula. EAEko atzerritarren bilakaera, nazionalitate garrantzitsuenen arabera. 1998-2011.

	1998		2001		2007		2011				
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%			
Guztira	15.198	100,0	Guztira	27.438	100,0	Guztira	98.524	100,0	Guztira	144.551	100,0
Portugal	3.241	21,3	Portugal	4.031	14,7	Kolonbia	11.630	11,8	Errumania	16.220	11,2
Maroko	1.615	10,6	Kolonbia	2.845	10,4	Bolivia	9.568	9,7	Maroko	15.679	10,8
Frantzia	1.130	7,4	Maroko	2.720	9,9	Errumania	8.715	8,8	Kolonbia	12.099	8,4
Alemania	813	5,3	Brasil	1.404	5,1	Maroko	8.627	8,8	Bolivia	11.778	8,1
Erres. Bat.	787	5,2	Frantzia	1.375	5,0	Portugal	7.437	7,5	Portugal	8.674	6,0
Kuba	529	3,5	Ekuador	1.219	4,4	Ekuador	7.436	7,5	Ekuador	6.675	4,6
Estatu Batuak	513	3,4	Erres. Bat.	1.145	4,2	Brasil	4.320	4,4	Brasil	5.736	4,0
Argentina	496	3,3	Alemania	1.013	3,7	Argentina	2.916	3,0	Aljeria	5.421	3,8
Brasil	439	2,9	Kuba	984	3,6	Txina	2.810	2,9	Paraguai	5.146	3,6
Txina	423	2,8	Txina	900	3,3	Argelia	2.532	2,6	Txina	4.746	3,3
Guztira 10	9.986	65,7	Guztira 10	17.636	64,3	Guztira 10	65.991	67,0	Guztira 10	92.174	63,8
Gainerak.	5208	34,3	Gainerak.	9802	35,7	Gainerak.	32.533	33,0	Gainerak.	52.377,0	36,2

Iturria: Geuk egina, EINEko datuetatik abiatuta.

Etorकिन kolektiboaren ezaugarriekin amaitzeko, 2010eko AEtik ateratako hainbat datu adierazgarri aipatuko ditugu, EAEko migrazioaren errealitatea testuinguruan kokatzeko informazio baliagarria emango digutelako. Ahal den heinean, Ikuspegik 2007. urtean atzerritarrei egindako inkestako zenbait datu ere txertatuko ditugu.

Egoera administratiboari dagokionez, % 99,6 erroldatuta dagoela nabarmenduko dugu lehenik. Erroldatzea ezinbestekoa da gizarte-zerbitzu eta gizarte-politika jakin batzuk eskuratzeko eta,aldi berean, gizarte-sustraitzearen bidez egoitza-baimena lortzeko garaian, egonaldia justifikatzeko froga nagusia da. Hori dela-eta, ehuneko hain handia izatea oso positibotzat hartu behar da etorkin integratzeko prozesuaren barruan. 2007an Ikuspegik egindako inkestaren arabera, etorkin % 91,1 zegoen erroldatuta; beraz, egoerak hobera egin du, etorkin ia guztiak erroldatuta baitaude egun.

Administrazioarekin loturiko beste alderdi garrantzitsu bat nazionalizazioak dira, etorkina biztanle autoktonoen pareko bihurtzen baita legearen aurrean; gai horri dagokionez, etorkin % 20k lortu du nazionalitatea. Baina kasu horretan alde nabarmenak daude jatorrizko eremu geografikoaren arabera. Hori horrela izanik, nazionalizazio-maila handiena latinoamerikarren artean gertatu da, baita EAEn egonaldi ertaina eta luzea duten nazionalitateen kasuan ere (Kolonbia edo Ekuador, kasu). Kontrako aldean, nazionalitatea lortzeko lege-eragozpen handiak dituzten nazionalitateak daude (Txina) edo azkenaldian iritsi direnak (Paraguai, Senegal), ondoko taulan ikus daitekeen moduan. Ikuspegiren 2007ko inkestaren arabera, nazionalizatutakoak % 8,5 ziren; beraz, hazkunde handia gertatu da eta hori adierazle positibotzat hartu behar da kolektibo horren gizarteratze-prozesuan.

Jatorriz atzerritarren diren biztanleak EAEn, nazionalizazio-ehunekoaren arabera. 2010.

	Nazionalitatea	Atzerritarra	Guztira
EB Mendebaldea	19,1	80,9	100
Errumania eta Ekial.Europa	5,8	94,2	100
Magreb	19,8	80,2	100
Argentina, Txile, Uruguai	37,6	62,4	100
Kolonbia, Ekuador, Peru	33,8	66,2	100
Bolivia	11,2	88,8	100
Paraguai	2,4	97,6	100
Brasil, Venezuela, Dominikar E	30,2	69,8	100
Latinoamerikako gainerakoa	24,4	75,6	100
Txina	5,3	94,7	100
Senegal	4,7	95,3	100
Afrikako gainerakoa	17,8	82,2	100
Munduko gainerakoa	8	92	100
Guztira	20	80	100

Iturria: 2010eko AEI.

#### 4. HEZKUNTZARI ETA HIZKUNTZAREN EZAGUTZA MAILARI BURUZKO DATUAK

Atal honetan, EAEn eskura dauden hezkuntzari buruzko datu garrantzitsuenak aipatuko ditugu. Horretarako, Hezkuntza Sailburuordetzaren datuak erabiliko ditugu, baita 2010eko AEIarenak ere. Inkesta horren datuen arabera, etorkinen % 77k ez du ikasketa kalifikaturik —LH II eta unibertsitatekoak— eta % 23k bai. Ikuspegik 2007an egindako inkestari dagokionez, hezkuntza-mailan hobekuntza izan dela esan dezakegu; izan ere, ikasketa kalifikaturik ez zutenak % 85 ziren eta ikasketa kalifikatuak bazituztenak % 15. Kasu horretan, jatorriak ere badu eraginik. Ikasketa kalifikatuak kasuan, batez bestekotik gora agertzen dira Mendebaldeko EBtik, Argentina, Txile eta Uruguaitik etorritako etorkinak. Aldiz, Afrika osotik (Magreb ere barnean hartuta) eta Txinatik datozenak kontrako muturrean daude.

EAEn izan duten hezkuntza-esperientziari dagokionez, % 22,6 ikasketa arautuko ikasle da edo izan da noizbait. Horien artean, gehienak (% 63,5, hain zuzen ere) bigarren hezkuntza baino lehen hasi ziren ikasten. % 82,9 A ereduan ari da ikasten, % 8 B ereduan eta % 9,1 D ereduan. Ikus daitekeenez, gaztelaniazko ereduak dira nagusi eta nagusitasun hori jatorrizko eremu guztietan atzeman daiteke, baina indar handiagoa du, logikoa denez, jatorri latinoamerikarreko nazionalitateen kasuan.

Inkestaren arabera, jatorri atzeritarreko ikasleen artean gizarte-gaitzespeneko edo -isolamenduko arazoak atzeman dira (% 5). Ehuneko hori % 20ra handitu da Senegaleko kasuan, eta % 25era Boliviaren kasuan. Datu hori kontuan izan behar da eta horretan gehiago sakondu beharko litzateke, 2010eko AEI inkesta zorrotzago aztertuz.

Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa sailak emandako datuen arabera, 2010. urtean euskal hezkuntza-sisteman 30.405 ikasle atzeritar zeuden. Horien artean, % 66,9 derrigorrezko ikasketak egiten ari zen, % 11,1 derrigorrezko ikasketen ondokoak eta % 22 Helduen Hezkuntzako zentro batean ari zen. Azken urteotan ikasle atzeritarren hazkundera etengabea izan da baina 2007. urtetik aurrera jaitsi egin da Helduen Hezkuntzako zentroetan ari direnen kopurua; aldiz, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan gorakada izan da.

8. taula. Ikasle atzeritarren bilakaera EAEn. 2007-2010.

	2007		2008		2009		2010		Gehik. 2007-2010
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	
Helduen Hezkun	6.416	27,2	7.423	27,2	7.300	24,8	6.681	22,0	4,1
Haur H.-Derrig	15.139	64,2	17.537	64,2	19.164	65,2	20.355	66,9	34,5
Derr. Ondokoa	2.010	8,5	2.355	8,6	2.939	10,0	3.369	11,1	67,6
Guztira	23.565	100	27.315	100	29.403	100	30.405	100	29,0

Iturria: Geuk egina, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datuetan oinarrituta.

Ikasle guztietatik % 40,9 latinoamerikarrak dira eta % 29 afrikarrak. Ildo beretik, Afrikako kasuan, euskal hezkuntza-sistemaren barruan duen garrantzia handiagoa da erroldan duena baino. Guztiz kontrakoa gertatzen da jatorri europarreko ikasleen kasuan eta, latinoamerikarrei dagokionez, oreka sumatzen da.

Ikastetxe-sareari dagokionez, ikasle atzerritarren % 74,9 ikastetxe publikoetan ari da ikasten. Kontuan izaten badugu ikasleen guztirakoa ia zati berdinetan banatuta dagoela ikastetxe publiko eta pribatuen artean, ikasle atzerritarren kasuan diferentzial garrantzitsua dagoela esan dezakegu. Izan ere, 2010ean, historia osoan lehen aldiz, sare publikoan ikasle gehiago izan ziren (% 50,1) eta litekeena da, hein handi batean, ikasle atzerritarren hezkuntza-sisteman, oro har, eta sistema publikoan, zehazki, sartu izanaren ondorio izatea hori.

Lurralde Historikoaren arabera, Araban daude ikasle atzerritar gehien (% 12), Gipuzkoan % 6,6 eta Bizkaian % 8. Era berean, ikasle atzerritarren % 20 baino gehiago duten ikastetxe gehien probintzia horretan daude, guztirakoaren % 15,2. Edonola ere, Helduen Hezkuntzan ikasten ari direnak alde batera utzita, hezkuntza-sisteman dauden atzerritarren kopurua % 6,9 da EAEn, erroldako datuek adierazten duten atzerritarren % 6,6aren pareko zifra izanik. Zifra horien arabera, ikasleen banaketa oso desorekatua dela pentsa daiteke. Hori horrela dela, oro har, ez da kopuru handia baina zenbait ikastetxetan bai.

Gaiarekin bukatzeko, EAeko hizkuntza ofizialen ezagutza-mailari buruzko datuak emango ditugu 2010eko AEItik. Hona hemen lehen datua: alde handia dago euskararen eta gaztelaniaren ezagutza-mailen artean. Euskara ongi edo oso ongi daki % 3,8k eta gaztelania, aldiz, % 81,4k. Gaztelaniaren kasuan, ehunekoak % 100 inguru dira nazionalitate latinoamerikarren kasuan —logikoa denez— eta txikiagoak dira beste zenbait kasutan. Gaztelaniaren ezagutza-maila txikiena dutenen artean, gaztelania ongi edo oso ongi dakiten txinatarren ehunekoa nabarmentzekoa da (% 22) eta txinatarren % 45,3k ezagutza-maila mugatua du. Txinatarren atzetik Magreb edo Senegal datoz.


## 5. LANAREN, EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN ARLOKO DATUAK

Jarraian, lan-merkatuarekin, egoera ekonomikoarekin eta gizarte-kalteberatasuneko eta pobreziaiko egoerekin loturiko datu nagusiak aurkeztuko ditugu. Horretarako, Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak hartuko ditugu oinarri, baita 2010eko AEIaren datuak ere.

Lan-arloari dagokionez, 2011. urteko apirilean, EAEn 52.388 atzerritar zeuden afiliatuta Gizarte Segurantzaren. Horien artean, % 67,12 erregimen orokorrari atxikita zeuden, % 12,8 autonomoen erregimenari, % 16,23 etxeko langileen erregimenari, % 2,98 nekazaritza-erregimenari eta % 0,87 itsasokoari. Hirugarren grafikoan datu horiek Estatuko batez bestekoarekin alderatu ditugu eta, ikus daitekeenez, afiliazioaren bitartez argi eta garbi ikus dezakegu zeintzuk diren lan-nitxo garrantzitsuenak EAeko atzerritarrentzat.

Hartara, eta itsasoko eta meatzaritzako erregimenak alde batera utzita, erregimen orokorrean eta autonomoen erregimenean ez da alde handirik sumatzen EAEn eta Estatuko batez bestekoaren artean. Hala ere, nekazaritza-erregimenak garrantzi txikiagoa du EAEn Estatuan baino eta, aitzitik, etxeko langileen erregimena garrantzitsuagoa da EAEn Estatuan baino (% 16,23 eta % 10,1, hurrenez hurren). Datu horiek argi eta garbi adierazten dute lehen esan duguna, hau da, nekazaritzak garrantzi txikia duela gure inguruan (Arabak izan ezik) eta etxeko lanen eta pertsonak zaintzearen sektorea garrantzitsua dela, eta are gehiago sektore horretako informaltasun-maila handia kontuan izaten badugu; hortaz, afiliazio-datuetan ez du behar besteko ordezkartza.

4. grafikoa. Gizarte Segurantzari afiliatutako atzerriarrak Espainian eta EAEn, erregimenaren arabera. 2011ko apirila.



Iturria: Geuk egina, Lan eta Inmigratioko Ministerioiko datuetatik abiatuta.

Datu horiek lurralde historikoaren arabera aztertuta ere, alde horiek agertuko dira; izan ere, 2010eko Arabako afiliazio-datuei jarraiki, lurralde horretan afiliatutako atzerriar guztien % 14,9 nekazaritza-erregimenean afiliatuta zegoen eta ehuneko hori % 3,9ra eta % 2,7ra jaitsi zen Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Kontrako muturrean, etxeko langileen erregimena % 16,5 zen Bizkaian, % 15 Gipuzkoan eta Araban % 8,2 baino ez.

2010eko AEIaren datuetan ere agertzen da lan-sektoreen banaketa hori: biztanleria landunaren % 72,6 zerbitzuen sektorean ari da eta % 21,3 etxeko zerbitzuan, sektorerik garrantzitsuena izanik (ostalaritzaren % 16,8 eta eraikuntzaren % 14,2 gaindituta).

Afiliazioari buruzko datuei erreparatuta, lan-egoerari buruzko informazioa lortuko dugu baina BAI edo BJA azterlanetan ikuspegi askoz ere osatuagoa eskaintzen dute, lan-kontraturik ez dutenei buruzko datuak ere biltzen dituztelako eta, atzerritarren kasuan, asko dira egoera horretan daudenak. BAI eta BJA azterlanek ez dute atzerritarren lagin esanguratsurik EAErako; beraz, 2010eko AEIaren datuak biziki garrantzitsuak dira, zentzu horretan.

Inkesta horren arabera, jatorriz atzerritarrak diren biztanleen % 52,1 okupatuta dago, % 23,4 potentzialki langabea da eta % 24,5 ez-aktiboa da. Datu horiek eta 2007koak alderatuta, ikusiko dugu okupazioak behera egin duela nabarmen (2007an % 69,3), langabeziak gora egin duela (% 17,8) eta biztanleria ez-aktiboak ere gora egin duela (% 12,4). Datuen arabera errealitate oso ezberdinak daudela konturatuko gara, eta 2007ko hazkunde ekonomikoko garaiarekin alderatuta, gaur egungo datuek krisialdi ekonomikoaren eta enplegu-murrizketaren egoera adierazten dute oraintxe bertan. Aldi berean, familia berriz elkartzeko faktoreari dagokionez, gora egin du, batik bat, emakumeen jatorrizko lan-merkatutako sarbidea txikiagoa den nazionalitateetan eta horrek ere eragina izan du, bereziki, biztanleria ez-aktiboaren kasuan.

Langabeziari helduta, Afrikatik datozenen kasuan batez bestekotik urrun daude, askoz ere tasa handiagoa baitute (Magreb % 51,3, Senegal % 51,6 eta Afrikako gainerakoa % 59,5). 2007an ere ikusten zen joera hori; goraldi ekonomikoaren garaian ere, marokoarren langabezia-tasa % 31,7 zen, % 37,7 Aljeriako kasuan eta % 46,7 Saharaz azpiko Afrikaren kasuan. Kontrako aldean Txina dago, atzerritarren barruan salbuespena dira % 5,3ko tasarekin eta okupazio-maila handiarekin.

Lan-baldintzei dagokienez, % 48,8k kontratu mugagabea zuen, % 36,6k mugagabea ez den kontratua eta % 14,6 kontraturik gabe ari zen lanean. Kontraturik gabekoen ehunekoa nabarmen handitzen da hainbat nazionalitate latinoamerikarretan, bi faktore uztartzen direlako: alde batetik, etxeko lanen sektorean garrantzi handiagoa dute eta sektore hori besteak baino askoz ere informalizatuagoa dago; eta bestetik, azkenaldian iritsitako nazionalitateak dira eta egoera administratibo irregularrean egoteko joera handiagoa dute. Horren ondorioz, ezinezkoa izaten zaie legezko lan-kontratu bat lortzea. Hori horrela izanik, kontraturik gabe ari diren Boliviako landunak guztizkoaren % 24,4 dira eta Paraguaikoak % 39,6.

% 69,9k prestakuntza-mailari dagokion enplegua lortu du eta % 26,7k, aldiz, prestakuntza-mailaz azpiko enplegua. Nolanahi ere, lanpostuarekiko gogobetetze-maila % 75etik gorakoa da eta maila handia du jatorrizko eremu geografiko guztietan.


Pertsona horien egoera ekonomikoa aztertuz, euren errenta-iturri nagusia enplegua da (% 50,1). Enpleguaren atzetik Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (% 9,6) eta langabeziagatiko prestazioa (% 7,2) datoz eta horien atzetik, alde handiaz, bestelako laguntza edo prestazioak. Arlo horretan bada nabarmentzeko moduko datu bat: inkesta erantzun duten % 29,9k dio ez duela inolako diru-sarrerarik.

DBE Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez, eta prestazio horrek etorkinen kolektiboarekin duen inpaktu mediatikoa kontuan izanik, hainbat datu nabarmenduko ditugu. Senegaldarren % 22,2k eta boliviarren % 20,5ek DBEa jasotzen du. Batez bestekotik gora daude, halaber, Maroko -% 12,4- eta Bolivia -% 11,1-; nazionalitate horiek azkenaldian iritsi dira eta kalteberatasun handiagoa dute. Izan ere, 2007ko inkestan ere atzeman zenez, egonaldi luzeagoa duten nazionalitateen kasuan DBEaren erabilera txikiagoa da; beraz, laguntza hori gizarteratzeko lorbide izaten da atzerritarrentzat eta ez bazterkeriari aurre egiteko azken segurtasun-sarea, biztanleria autoktonoaren kasuan bezala. Biztanle horien hileko batez besteko diru-sarrerak 863,49 euro dira eta 2007an 810 euro ziren. Kasu horretan ere, alde handiak daude jatorriaren arabera: Mendebaldeko Europatik datozenen artean batez beste 1032,26 euro, txinatarren artean 1.121,64 euro eta boliviarren artean 699,76 euro.

Hein batean diru-sarrerekin loturik, atzerritarren % 29k dirua bidaltzen du; guztira, 7,9 milioi bat euro izango lirateke. Ildo beretik, EAEn denbora gutxien daramatenek bidaltzen dute dirua, jatorrizko herrialdearekin familia-lotura eta lotura afektibo handiagoak dituztelako —familia ez da berriz elkartu oraindik—.

% 60,1ek dio zailtasunen bat izaten duela premia ekonomikoei aurre egiteko. Ehuneko hori handixeagoa da Magrebetik, Boliviatik, Senegaldik edo Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritakoen kasuan; ikus dezagun 4. grafikoan.

5. grafikoa: Premia ekonomikoei aurre egiteko zailtasunen bat izan duten atzerritarren ehunekoa. 2010.



Geuk egina, 2010eko AEIaren datuetatik abiatuta.

Kolektiboaren bizi-baldintzen azterketarekin jarraituz, % 10,7k dio bizi-baldintza desagokiak dituen etxe batean bizi dela. Kasu horretan, aurrekoan bezalaxe, egoera txarrean daude Bolivia, Senegal, Magreb edo Afrikako gainerako herrialdeak.

Inkesta egin den etxeen kasuan, % 11,4k dio bere burua pobretzat duela, eta pobretzat edo pobre samartzat hartzen dutenak % 24,6 dira. Aurreko bi gaietan atzemandako joera berdina errepikatzen da kasu horretan, eta bigarren ehuneko handiagoa da Magrebetik -% 38,7-, Boliviatik -% 38,3-, Senegaldik -% 49,5- edo Afrikako gainerako herrialdeetatik -% 53- etorritakoen kasuan.

## 6. IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAK ETA ATZEMANDAKO DISKRIMINAZIOA

Ondorioen aurreko atal honetan migrazio-fenomenoaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak aztertuko ditugu. Lehenik, biztanleria autoktonoaren iritziarekin loturiko hainbat datu aurkeztuko ditugu eta horretarako Ikuspegiren 2011ko Barometroko zenbait datu azalduko ditugu. Bigarrenik, 2010eko AEIak integrazioari eta diskriminazioari buruz eskaintzen dituen hainbat datu aztertuko ditugu.

Hona hemen nabarmendu beharreko lehen datua: antza, immigrazioa ez da arazoa autoktono gehienentzat; soilik % 10,7k dio badela. Aldi berean, immigrazioa arazo pertsonala dela dio % 5,6k baino ez.

Horretaz gain, EAeko biztanleek jarrera positiboa dute kultura-aniztasunaren aurrean eta ez dute uste, esate baterako, etorkinek jatorrizko kultura eta ohiturak alde batera utzi behar dituztenik (% 61,7k dio hori, eta 2010ean % 57,8 ziren).

Edonola ere, ikuspegi bat da nagusi (% 79,8), hain zuzen ere, bizikidetasuna lortzeko ahalegin nagusia etorkinei dagokiela. Galdera horren erantzunari eta beste hainbati erreparatuta, konturatuko gara autoktonoek integrazioari eta bizikidetasunari ikuspegi asimilazionistatik begiratzeko dietela.

2010eko barometroan, hainbat gai kezagarriak ziren immigrazioarekiko iritzari dagokionez; esaterako, immigrazioaren eraginez segurtasunik eza edo delinkuentzia areagotzen diren pertzepzioa, edo babes-sistema ofizialaz gehiegi baliatzen ziren pertzepzioa. Aurtengo azterketan, iritzi horiek gutxitu eta baretu egin dira. Segurtasunik ezaren eta delinkuentziaren kasuan, aurtengo datua % 46,1 da, eta ia % 55,7 zen. Babes-sistema ofizialaren gehiegizko erabilerari dagokionez, aurtengo zifra % 64,2 da eta ia bost puntu murriztu da. Hala ere, ehuneko horiek oso handiak dira oraindik eta kontuan izan behar dira.

Orain arte bezala, biztanleria autoktonoarentzat enplegua da etorkinak integratzeko gakoa eta, ehuneko zertxobait gutxitu den arren —ziurrenik krisialdi ekonomikoaren ondorioz—, oraindik ere askok erantzun dute enplegua oso garrantzitsua dela egoitza-baimena lortzeko.



Beraz, oro har, zera esan dezakegu, krisialdiak ez duela inpaktu handirik izan immigrazioari buruzko jarrerari; aurreko bi urteetan agian izan du, baina 2011ko inkestan posizio askoz ere toleranteagoak agertu dira eta galdera gehienetan, 2009ko eta 2010eko zifrak hobetu egin ditugu. Ikuspegik tresna bat erabiltzen du kolektibo autoktonoak immigrazioaren aurrean duen onarpen-maila neurtzeko: Tolerantzia Indizea. Indize horri eta urteak joan, urteak etorri indizeak izan duen bilakaerari erreparatuta, 0-100 eskalan 57,15 puntu izan dituela ikusiko dugu, 2010ekoa baino hobea -56,65- eta 2009koaren parekoa -57,17-.

Alde batetik, autoktonoek immigrazioarekiko duten jarrera aztertu dugu, baina interesgarria izan daiteke, halaber, atzerritarrek pentsatzen dutena aztertzea, harrera-gizartearen jarrerari buruz. Jatorri atzerritarreko biztanleen % 28,6k pairatu du edo sumatu du gaitzespenik bere etxeko kideen artean atzerritarra izateagatik edo erasoren bat jasan du erlijioarekin edo arrazarekin loturiko arrazoiengatik. Egoera hori areagotu egiten da Saharaz azpiko edo Boliviako Herritartasun artean.

Ildo beretik, % 19,6k arrazakeriarekin edo xenofobiarekin loturiko bizipenak izan ditu EAEn. Kasu horretan, Saharaz azpiko afrikarrek eta boliviarrak ere inpaktu handiagoa izan dute. Bizipen horien barruan, irain, jarrera, aurreiritzi edo iruzkin xenofobo orokorrak dira nagusi (% 32,6), baita eraso, jazarpen, tratu txar edo indarkeria eragin zutenak ere (% 20,5).

Datu horiek ez ditugu bigarren maila batean utzi behar, baina nolahi ere, atzerritarren % 92k dio ez duela arazorik izan gure gizartean integartzeko eta autoktonoekin harremanak egiteko. Nazionalitate bat baino ez da urruntzen ildo horretatik, txinatarrak, hain zuzen, % 46raino jaisten baita ehuneko hori. % 19k dio ez duela bere burua gure gizartean integratuta sentitzen, edo oso gutxi; batez besteko horren gainetik daude diskriminazioa gehien sumatzen duten nazionalitateak, hala nola Senegal eta lehen aipatu dugun Txina. Integrazioaren eta harrera-gizartearen balioespen positibo horri eutsiz, atzerritarren % 87k modu positiboan balioesten du biztanleria autoktonoa.

Arlo horretako 2007. urteko datuetan berretsi egiten da etorkinen ikuspuntu positibo hori; izan ere, % 70,9k uste du autoktonoek modu atseginean hartu dutela eta % 65,9k dio nahikoa edo oso integratuta ikusten duela bere burua. Hori horrela izanik, eta galderen enuntziatua eta esanahia berdin-berdina ez den arren, etorkinen kolektiboak sentitzen duen integrazio-maila nabarmen handitu dela esan dezakegu.

Atal hau amaitzeko, eta aurreko bi paragrafoekin loturik, atzerritarren % 89,6k bere burua EAEn bizitzen ikusten du bost urteren buruan eta % 75,9 da ehuneko epe luzeagoan ere. Azken batean, kolektiboaren etorkizuneko itxaropenak EAEn sustraitzen direla ikus dezakegu eta, egun bizi dugun krisialdi ekonomikoaren garaian ere, iritzi hori da nagusi. Are gehiago: Ikuspegiren 2007ko inkestan zifra hori % 59,2 zen. Esan gabe doa egonaldia luzeagoa izateak eragina duela ehunekoaren hazkunderan baina ezin dugu alde batera utzi beste hipotesi bat ere, hau da, krisialdia bera eta jatorrizko herrialdeko itxaropen eskasak izatea hazkunde horren eragile. Logikari jarraiki, azkenaldian iritsi diren nazionalitateen artean txikiagoa da EAEn modu iraunkorrean geratzeko asmoa, denbora gehiago daramaten nazionalitateekin alderatuz gero, azken horiek gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua garatu baitute EAEn.

## 7. AZKEN HAUSNARKETAK KRISIALDIAREN TESTUINGURUAN

Azken atal honetan, aurrekoetan azaldu diren ideia nagusiak bilduko ditugu eta, horrekin batera, egun bizi dugun egoerari buruzko hainbat hausnarketa egingo ditugu, epe ertain eta luzea ere kontuan izanik.

- Hasteko, immigrazioak duen garrantzia nabarmendu behar dugu bai demografian, bai gizartean eta bai ekonomian. Immigrazioari esker biztanleriaren guztizko bolumenari eutsi egin zaio demografikoki oso gutxikorra den testuinguru honetan eta oso zahartuta zegoen gizartea gaztetzeko faktore izan da. Bestalde, immigrazioak okupazio-ekarpen erabakigarria egin dio zahartze-prozesuan dagoen gizarteari, aparteko okupazio-ekarpena behar zuen-eta.
- Beraz, immigrazioaren egiazko dei-efektua enplegua eta lan-merkatuaren lan-premiak izan dira eta dira orain arte. Faktore horiek, ez bestek, erabakitzen dute migrazio-fluxuen intentsitatea, jatorrizko herrialdea edo aldagai sozio-demografikoak (adina eta sexua, esaterako). Izan ere, datuen arabera, etorkinen artean enplegurako joera da nagusi, argi eta garbi.
- Eta EAEn ere atzeman daitezke joera horiek. Arabako lan-merkatuan sektore garrantzitsuenak etorkinak txertatu ohi diren sektoreak izaten dira, batik bat, ekonomian nekazaritzak garrantzi handia duelako; Arabaren kasu horretan, atzerritarren ehunekoa handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan baino, azken bi horietan sektore horrek garrantzi txikia duelako eta etorkinen kolektiboarentzat lan-itxo nagusia etxeko lanen eta pertsonak zaintzearen sektoreak direlako. Ildo beretik, EAEn industria-sarea oso garrantzitsua da eta oso arautua eta informaltasun-maila txikikoa denez, EAE ez da oso toki erakargarria izan orain arte etorkinentzat.
- Aurreko bi puntuei dagokienez, azken hamarkadan gertatu diren migrazio-fluxuak ez dira ausazkoak edo desordenatuak izan; prozesu logiko eta ordenatuen arabekoak baizik. Ildo beretik, jatorri atzerritarreko biztanleen % 73,8 zuzenean jatorrizko herrialdetik iritsi da EAera, hau da, nora eta zertara zetorren argi eta garbi zuten, eta, kasu askotan, lanen bat aldeztu aurretik hitzartuta zutela, aurreko hamarkadatan barne-immigrazioarekin gertatu zen moduan.
- Ondorio hauen barruan nabarmendu beharreko bigarren elementua —eta 2010eko AEIari argi eta garbi ikusten da— zera da, etorkinen kolektiboak hitz egin beharrean, etorkinen kolektiboetaz, pluralean, hitz egin beharko genukeela, askotariko egoerak eta aniztasun handia baitago biztanleria horren barruan.
- 2010eko AEIaren datuak kontuak izanik, oro har, hiru talde nagusi bereiz ditzakegu etorkinen kolektiboen barruan:
  1. Kolektibo kaltebera: Laneratze- eta gizarteratze-adierazleak eta bizi-baldintzak oso txarrak dituzte, gainerako kolektiboenak baino nabarmen txarragoak. Aldagai erabakigarriak izaten dira

nazionalitate horien kasuan egonaldi laburragoa eta egoera administratibo txarragoa izatea. Termino kuantitatibotan, tarteko mailan daudela esan dezakegu eta honako herrialde hauek sartuko liriteke: Bolivia eta Paraguai Latinoamerikatik, eta Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak.

Magreb ere sar dezakegu talde horretan baina hainbat zehaztasun eginda: nazionalitate hori bi boladatan iritsi da, bata aspaldi eta bestea berriki; eta ezaugarrietan ere dualtasuna agertzen du. Nolanahi ere, kolektibo kalteberetako bat da, bereziki, lan-arloan.

2. Integratze-prozesuan dagoen kolektiboa: talde hau erdibidean dago gizarteratzeari eta laneratzeari dagokienez, baita bizi-baldintzei eta autoktonoekiko bizikidetasunari dagokienez ere. Nazionalitate horiek duela zenbait urte iritsi dira eta aurreko taldeak baino egoera administratibo hobea dute. Termino kuantitatibotan, EAEko etorkinen kolektiboa osatzen duten multzo garrantzitsuena dira eta honako hauek sartzen dira: Errumania eta Latinoamerikako herrialdeak (Peru eta, bereziki, Kolonbia eta Ekuador).

3. Kolektibo integratuak edo erdi-integratuak: Talde horrek integrazio-adierazle handienak ditu ekonomiaren, lanaren edo gizartearen arloan eta EAEn denbora gehien daramaten nazionalitateak sartzen dira, baita egoera administratibo hobea dutenak ere. EAEn bizi diren jatorri atzerritarreko biztanleen artean gutxiengoa dira eta honako herrialde hauek sartzen dira: Argentina, Txile edo Uruguai eta, bereziki, Mendebaldeko Europako edo EB-12ko herrialdeak.

Txinatarren kolektiboari buruz aipamen berezia egingo dugu; izan ere, ekonomiaren edo lanaren arloan oso adierazle onak dituzte (zenbait kasutan, biztanleria autoktonoak baino hobeak) baina gabezia izugarriak dituzte gizarteratzean, autoktonoekiko harremanak, harrera-gizartearekiko bizikidetasuna edo hizkuntzaren ezagutza-maila aztertuz gero. Beraz, integrazio-eredu duala dela esan dezakegu, barrurantz oso integratuta eta txertatuta dagoen komunitatea da baina, aldi berean, kanporantz oso-oso itxia.

- Hori horrela izanik, egonkortasun-continuum bat ezar dezakegu, egonaldiaren iraupena eta egoera administratiboa oinarri hartuta mailaketa bat egiteko:
  1. Continuumaren mutur batean honako hauek daude: erroldan erregistratu gabe dauden eta egoitza-baimenik ez duten pertsonak; oro har, iritsi berriak izaten dira eta integrazio-adierazle negatiboenak eta egoera txarra izaten dute. Datuen arabera, atzerritar oso gutxi dago erroldan erregistratu gabe; beraz, gaur egun, continuumaren estadio hori txikiagoa da.
  2. Bigarren mailan, erroldatuta bai baina egoitza-baimenik ez duten pertsonak daude. Kasu horretan, osasun-zerbitzu publikoetarako sarbidea da errolda, baita gizarte-arloko hainbat eskubide baliatzeko ere, eta etorkizunean egoitza-baimena lortzeari begira, iristeko unea justifikatzeko balio du. Esku artean ditugun datuen arabera, % 13,2 dago egoera honetan; azken

hamarkadan izan den tasarik txikiena da hori eta, kolektibo horren barruan, boliviarrak, paraguaiarrak edo senegaldarrak dira nagusi —hau da, talde kalteberan sartu ditugunak eta migrazio-prozesu berrienak dituztenak—.

3. Hirugarren estadioan, egoitza-baimena baduten atzerritarrak sartzen dira, batik bat, lehen edo bigarren berritzea egin dutenak. Integratze-prozesuan dagoen taldeko pertsonak osatzen dute estadio hori.
  4. Continuumaren beste muturrean, aldiz, egoitza-baimen iraunkorra duten edo nazionalitate espainola lortu duten pertsonak daude. Kasu horretan, egonkortasun administratiboa handia da eta aurreko estadioetan baino integrazio-adierazle handiagoak daude. Talde horretan sartzen dira integratuen edo erdi-integratuen taldekoak.
- Oraingoan, badirudi continuum hori automatikoki gertatzen dela kasu gehienetan eta kalteberatasuneko eta egoera txarreko aldia gainditu ostean, arian-arian integratu egiten dira. Datuek joera hori adierazten dute.
  - Esanak esan, etorkinen kolektiboaren egungo egoera positibotzat har daiteke. Continuumari jarraiki, gizarte-prozesua egoki bete da eta betetzen da, itxuraz, etorkin gehien kasuan. 2007. urtearekin alderatuta, erroldan erregistratutako pertsonen eta egoera administratiboaren hobekuntza gertatu da. Bestalde, 2011ko Barometroaren datuak, oro har, hobeak dira 2010. eta 2009. urteetakoak baino eta oso autoktono gutxi jotzen du immigrazioa oraindik ere arazotzat. Era berean, etorkinek ere positiboki balioesten dute, oro har, beren egoera eta EAEn luzaro egoteko asmoa agertzen dute, baita Euskadin integratzeko eta Euskadirekin identifikatzeko borondate handia ere.
  - Alabaina, epe motzera kontuan izan beharreko elementu kezagarriak ere badira. Alde batetik, ia % 20k arrazakeria eta xenofobia pairatu ditu eta % 28,6k diskriminazio motaren bat jasan du. Datu horiek ikusita, erne egon beharko genuke eta jarraipen estu-estua egin beharko genieke egoera horiei, gure gizartean ez daitezela hedatu.
  - Halaber, oso interesgarria izango da honako hau aztertzea: egungo krisialdi ekonomikoak egonkortasun-continuum horretan nola eta zertan eragiten duen. Izan ere, krisialdi ekonomikoak eten handia eragin du etorkinen integrazio-ardatz nagusian, hau da, enpleguan. Eta etorkinen sarreran gertatzen ari den mantsotzea —ez desagertzea— izan daiteke horren adierazgarri.
  - Horri dagokionez, pentsa dezakegu etorkizunera begira fluxu horiek ez direla desagertuko baina bai arindu, hein handian. Edonola ere, krisiak eragin txikiagoa izan duenez etxeko lanen sektorean eta mendetasunaren edo zaintza soziosanitarioen arloko premietan, gure ustez EAEk etorkin gehiago har ditzake datozen urteotan; are gehiago, azken bi urteotan hazkunde handienetakoa izaten ari den Autonomia Erkidegoa dela kontuan izanez gero.

- Esandakoa aintzat hartuta, badirudi krisialdiaren ostean fluxu txikiak eta etorkin stock handia izango dugula; horrek esan nahi du politika publikoak aldatu egin beharko direla atzerritarrei eta harrerara bideratutako politikatik integrazioa eta aniztasunaren kudeaketa ardatz dituen politikara.
- Ildo beretik, eta aurrera begira, enpleguarekin batera, beste erronka nagusia heziketa izango da, etorkinen lehen belaunaldiaren seme-alaben heziketa, hain zuzen, betiere heziketa gizarteratzen eta integratzen laguntzeko oinarri izanik eta kolektiboaren gizarte-mugikortasunaren eragiletzat hartuta.
- Oraindik ez dago datu erabakigarririk kolektiboaren eskolatzeko-prozesuari buruz, eta are gutxiago EAEn, fluxuak beranduago gertatu baitira eta ikasle atzerritarren garrantzia Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa baita. Hala ere, hainbat datu kezkatzeko modukoak dira eta gaiari buruzko hausnarketa eragin beharko ligukete. Izan ere, Europako Batzordeak berriki egin duen azterlan baten arabera, Estatuan eskola uztearen tasa % 31,2 da, guztira, eta % 45 etorkinen artean. Egoera benetan kezagarria da eta bigarren belaunaldien kalteberatasun-egoerak kroniko bihurtzea saihesteko mekanismo eta estrategiak abiarazi beharko lirateke; izan ere, beste hainbat tokitan ikusi dugunez, gizarte-kohesioa arriskuan egon baitaiteke eta gatazka-iturri izan.
- Gure ingurune hurbilean ere bi elementu kezagarri aipatuko ditugu etorkinen heziketari dagokionez. Lehena gehiegizko ordezkartza da, kolektibo horrek sare publikoan duen gehiegizko ordezkartza, hain zuzen, eta hori dela-eta, sare pribatuaren eta hitzartuaren inplikazioa txikiagoa da talde horren eskolatzean. Bigarrena A ereduaren nagusitasuna da; kolektibo horren eskolatzean A ereduak da nagusi zailagoa izaten zaielako beste hizkuntza ofiziala ikastea eta, horretaz gain, etorkinen seme-alabak gizarartean mugitzeko eta gora egiteko beste eragozpen ere izan daitekeelako.
- Azken batean, eta aniztasunaren zentzuzko kudeaketarekin batera, kolektiboaren integrazio erreal eta materialari eman behar zaio garrantzia eta, horretarako, gure ustez, bi elementu dira ezinbestekoak eta gakoak: enplegua eta hezkuntza. Edo bestela esateko, lehen belaunaldiko etorkinak enplegua izatea eta bere semeak edo alabak enplegu hobea lortzeko aukera izatea hezkuntzaren gizarte-igogailuaren bitartez. Orain arte, aurreko immigrazioarekin premisa horrek emaitza onak izan ditu eta gaur egun ere horixe lortu behar dugu atzerriko etorkinentzat.



# ARAU ESPARRUA

Espanian immigrazioari buruzko erregulazioaren arau-esparruan nazioarteko, Erkidegoko, Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko arau-sare konplexua biltzen da. Atal honetan ez ditugu horiek denak zehatz-mehatz aztertuko, baizik eta erreferentziazko funtsezko araudia eta horien oinarriak azaletik aurkeztuko ditugu, bai giza duintasunaren babesari dagokionez, bai eskumen-esparruak zehazteari dagokionez. Horregatik, Espainian eta EAEn immigrazioaren arloan eragin zuzena duten arau garrantzitsuenak azalduko ditugu atal honetan.

### NAZIOARTEKO EREMUA

Konstituzio Espainolaren 96. eta 10.2 artikulua kontuan izanik, Konstituzioaren mandatuz, nazioarteko itunak sinatu, berretsi eta BOEn argitaratu eta gero, barne-antolamenduaren osagai izango dira eta, beraz, Espainiako Justizia Administrazioan arazoitzat aipa daitezke.

Nazioarteko araudiaren eremuan, honako hauek dira arau garrantzitsuenak: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948), Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966), Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Ituna (1966), Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa, Protokolo eta guzti (1951 eta 1967), Aberrigabeen Estatutuari buruzko Konbentzioa (1954), Arraza Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Nazioarteko Hitzarmena (1965), Emakumearen aurkako Bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (1979), Torturaren eta bestelako Tratu Krudel, Anker eta Umiliagarrien aurkako Konbentzioa (1984) eta Haurren Eskubidei buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1989). Era berean, ez dugu ahaztu behar Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena edo Palermoko Hitzarmena (2001) eta horren Protokolo gehigarria, pertsonen eta, bereziki, emakume eta haurren salerosketa prebenitu, zapaldu eta zigortzeko; eta bukatzeko, 97. Hitzarmena ere aipatuko dugu, langile migratzaileei buruzkoa (1949, 1967an berrikusia).

### ERKIDEGOKO EREMUA

Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna oinarritzat hartuta, immigrazioari dagokionez, Europako erakundeek Bisatuetan, Asiloan, Immigrazioan eta Pertsonen Joan-etorri Askearekin loturiko beste politika batzuetan eragin dezakete, betiere KEren 93. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Esparru horretan, immigrazioaren arloan eragina duten Europako arau garrantzitsuenak honako hauek dira: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (1950), Europako Gutun Soziala (1961), Langile Migratzailearen Estatutu Juridikoari buruzko Hitzarmena (1977) eta Gizakien Salerosketaren aurkako Ekintzei buruzko Europako Hitzarmena edo Varsoviako Hitzarmena (2005).

Bestalde, gaiarekin loturiko Zuzentarau garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

2000/43/EE Zuzentaraia, pertsonen tratu berdina emateko printzipioa ezartzen duena arraza edo jatorri etnikoa kontuan izan gabe; 2000/78/EE Zuzentaraia, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa; 2001/55/EE Zuzentaraia, oso erbesteratu kopuru handiak etorritako gero horiei aldi baterako babesa emateko gutxieneko arauari buruzkoa; 2002/73/EE Zuzentaraia (76/207/EE Zuzentaraia aldatzen duena) eta 2004/113/EE Zuzentaraia, gizon eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa; 2003/9/EE Zuzentaraia, estatu kideetan asilo-eskatzaileak hartzeko gutxieneko arauak ezartzen dituena; 2004/83/EE Zuzentaraia, hirugarren herrialdeetako naziotasuna dutenei edo aberriagabeei errefuxiatu-izaera eta -estatutua edo nazioarteko bestelako babes motak behar dituztela aitortzeko baldintzetarako gutxieneko arauari buruzkoa, bai eta emandako babesaren edukari buruzkoa ere; 2003/86/EE Zuzentaraia, familia berrelkartzeko eskubideari buruzkoa; 2003/109/EE Zuzentaraia, iraupen luzeko hirugarren estatuetako egoiliarren estatutuari buruzkoa; 2005/85/EE Zuzentaraia, errefuxiatu-izaera aitortzeko edo ukatzeko estatu kideek aplikatu behar dituzten prozeduren gutxieneko arauari buruzkoa; eta azkenaldiko 2011/36/EB Zuzentaraia, gizakien salerosketaren aurkako borrokari eta prebentzioari buruzkoa, baita biktimak babesteari buruzkoa ere.

Halaber, Erkidegoari dagokionez, 2010eko apirilaren 15ean eta 16an Zaragozan Integrazioari buruzko Europako Ministro Konferentzia izan zen eta 2004. urtean onartutako Etorkinak Europar Batasunean integratzeko politiketarako Oinarriko Printzipio Komunikatuak finkatu zituzten.

2003an, Europako Batzordeak aipatua zuen jada integrazio-politikek integralak izan beharko luketela eta aniztasunaren (kulturalari, erlijioari eta abarri zegokionez) kudeaketa kontuan izan behar zela.

Lehen aipatu dugun 2010eko Integrazioari buruzko Europako Ministro Konferentzi horretan, besteak beste, honako printzipio hauek ezarri zituzten: enplegua integrazio-prozesuaren funtsezko osagaia da eta ezinbestekoa da atzeritarrek harrera-gizartean parte hartzeko; hezkuntza oinarriko elementua da diskriminazioaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan; kultura arteko elkarriketa tresna garrantzitsua da beste jatorri, kultura eta erlijio batzuetatik datozen pertsonen integrazioa sustatzeko; integrazioarekin loturiko gaiak jardun-eremu guztietan txertatu behar dira, inplikaturako administrazio guztien lankidetzara eta koordinazioa bermatuz, eta integrazioari buruzko agenda berria sortu behar zela erabaki zen, politika inklusiboak lantzeko eta integrazioaren ideia garapenaren eta gizarte-kohesioaren eragiletzat garatzeko, politika publikoetan integrazioaren ikuspegi global eta zeharkakoa izanik.

Era berean, kultura-aniztasuna aukera bat dela ere aipatu zen, hau da, EBko garapen sozial eta ekonomikorako aukera bat, baita diskriminazioaren aurka borrokatzeko tresna bat ere; beraz, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka egiteko formulak sustatzen eta "giza kapitalaren" kontzeptua garatzen jarraitu behar da, sektore arteko planteamendu bat bermatuz, betiere, eta besteak beste, hezkuntzako eta enpleguko programak bilduz. Gizarte zibila tartean sartu behar da parte-hartzea



bultzatuz, integrazio-politiken ebaluazioa sustatu behar da eta, azken batean, lankidetzaren sinergia bat bultzatu EB osoan, integrazioaren arloan.

### ESTATUKO EREMUA

Barne-araudiari dagokionez, Estatuan, 1978ko Konstituzio Espainolean finkatutako erregulazioa dugu, zehazki, 149. artikuluan. “Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: Naziotasuna, immigrazioa, emigrazioa, atzeritartasuna eta asilo-eskubidea. Azken hiru lege-aldaketetan maila txikiagoko erregulazioen ondoriozko hainbat salbuespen badiren arren (uztailaren 10eko 1162/2009 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoak), abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Erregelamendua aldatu egin zen, egoitzako eta lanerako hasierako baimena emateko prozeduren erregulazioa egokitzearren, Autonomia Erkidego jakin batzuetan arlo horretako eskumen betearazlea eskualdatu izanagatik. (Katalunia eta Andaluzia)

2 bis artikulua araberak, eta immigrazio-politikarekin loturik, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoan —8/2000, 11/2003, 14/2003 eta 2/2009 Lege Organikoen bidez aldatu da— honako hau xedatzen da:

“1. Konstituzioaren 149.1.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Gobernuari dagokio immigrazio-politika definitu, planifikatu, arautu eta garatzea, *Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Erakundeek har ditzaketen eskumenak alde batera utzi gabe.*”(1)

Lege horren eta bere aldaketaren bidez migrazio-prozesuaren alderdi nagusiak arautzeaz gain, hitzaurrean etorkinen integrazioarekin loturiko alderdi nagusiak ezartzen ditu; hori horrela izanik, hitzaurre horretan honako alderdi hauek zehazten dira:

Etorkinak Espainian erabat integratzea ahalbidetu behar dute botere publikoek eta etorkinen eta autoktonoen arteko bizikidetzaren eta gizarte-kohesioa bermatu.

Erreformaren helburuak hauek dira, besteak beste: integrazioa sendotzea, immigrazio-politikaren ardatz nagusietako bat den aldetik; araudia Autonomia Estatuetan jasotako lan-betearazpeneko eskumenetara egokitzea; eta Administrazio Publikoen jardunen koordinazioa sendotzea.

Immigrazioari buruzko Sektore Konferentzia Legean txertatu dela aipatu behar dugu, Estatu Administrazio Orokorraren eta Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzaren bideratzeko, eta bi Administrazio Publiko horiei jardun koordinatua eskatu zaie.

Lege horren 2 TER artikuluan, eta etorkinen integrazioari dagokionez, honako hau xedatzen da:

“Atzeritarrak Espainiako gizartean erabat integratzea sustatuko dute botere publikoek”.

“Administrazio Publikoek integrazioaren helburua txertatuko dute etorkinen eta gizarte hartzaileren artean, politika eta zerbitzu publiko guztietan zeharkako izanik”.

Orobat, artikulua horretan bertan dioenez, Estatuko Administrazio Orokorra Autonomia Erkidegoekin, Ceuta eta Melilla Hiriekin eta Udalekin lankidetzan arituko da artikulua honetan deskribatutako helburuak betetzearren.

Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bitartez onartutako LOEX erregelamendu berria hainbat printzipio finkatu dira; besteak beste, etorkinen integrazioan eskudunak diren Administrazioen artean (AEak eta Udalak) kooperazioa indartzea.

Integrazioarekin eta administrazio publikoen arteko koordinazioarekin loturik, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bitartez onartutako atzeritarrei buruzko legearen erregelamendu bidez onartutako atzeritarrei buruzko araudi berria biltzen duten txostenak oso garrantzitsuak dira. 31.3ari dagokionez, 9.4, 18.2, 31. 7, 35.9, 68.3 artikuluetan bildutako txostenak; horiek guztiak goian aipatu dugun atzeritarrei buruzko legearen dagozkien artikuluetan oinarrituta, 2. Ter, 68.3, 5. XG, 51., 61., 71., 109., 55. eta 124.

Erregimen bereziak diren arren, integrazioaren arloan Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioaren parte diren beste estatuetakoa herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez ibiltzeari eta bizitzeari buruzko 240/2007 Errege Dekretua kontuan izan behar dugu (1161/2009 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen). Arau hori bereziki aldatu da, batik bat, Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 1eko Epaia argitaratu ostean; izan ere, epai horren bitartez 240/2007 Errege Dekretuaren hainbat idatz-zati baliogabetu ziren.

Migratzaileen integrazioari dagokionez, nazioarteko babesari eta asiloari buruzko araudia hartu behar dugu aintzat, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen 12/2009 Legea, alegia (araudia garatu gabe dago oraindik), 9/1994 Legearen bitartez aldatutako 5/1984 Legearen ordezkioa baita. Eta 864/2001 eta 2393/2004 Errege Dekretuen bidez aldatutako 203/1995 Errege Dekretua. Era berean, Barneko edo nazioarteko gerren ondorioz desplazatutakoekin eta aberrigabeekin loturiko araudia ere kontuan izan behar da: 865/2001 Errege Dekretua eta 1353/2003 Errege Dekretua, desplazatuen multzo handiak etorri zirela emango zaien aldi baterako babesaren erregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Azkenik, Nazionalitatearen arloari dagokion legedia aipatuko dugu: besteak beste, Kode Zibila, 18/1990 eta 36/2002 Legeen bitartez aldatu dena.

---

---

*(1) Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, hiru erakunde-maila daudela aipatu behar da: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak, eta horietan oinarrituta egituratzen da Autonomia Erkidegoaren administrazioa. Kudeaketako gune horiek eskumen jakin batzuk dituzte immigrazioarekin loturik, errealitate hori zeharkakoa den aldetik (gizarte-asistentzia, kultura-arlokoa...).*



# IMMIGRAZIOARI BURUZKO EAEko POLITIKA PUBLIKOEN MAPA

## 1. SARRERA

Atal honetan, immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketaren arloan EAEn azken urteotan garatu diren politika publiko nagusien argazkia aztertuko dugu. Hasieran, termino instituzional, juridiko-administratibo eta abarretan zuzeneko titulartasuneko tresna eta egiturak aztertuko ditugu edo, bereziki, Eusko Jaurlaritzari eta, zehazkiago, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzari atxikitzen zaizkionak.

Beste zenbait ez dira zuzenean Zuzendaritzarenak, baina Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren finantzaketari esker aktibatu eta garatzen dira, beste administrazio publiko batzuen mende, batik bat, Tokiko Erakundeak (immigrazio-teknikariak, Udal Bitartekotza Zerbitzuak, Asistentzia juridikoko zerbitzuak). Baita Gizarte Erakundeetan ere, formatu ugarritan (zerbitzuak, programak, proiektuak, jarduerak eta abar), eta, oro har, diru-laguntzen erregimenean. Nolanahi ere, hurrengo atalean aztertuko ditugu.

Bukatzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren barruan, beste hainbat tresna eta egitura ere azter ditzakegu, euskal immigrazio-politikaren prozesu garrantzitsuenetan inplikaturik dauden aldetik, baina hausnarketan zehaztasun handiagoa beharko luketenez, hurrengo atalean aztertuko ditugu horiek ere.

### 3.1. TRESNA ETA EGITUREN MAPA

Honako taula honetan, Eusko Jaurlaritzak immigrazio-politika bideratutako tresna egonkor eta esanguratsuenak bildu ditugu:

Immigrazioaren Euskal Politika bideratzeko eta plangintza egiteko tresnak	Immigrazioari buruzko Euskal plana
Immigrazioari buruzko plan orokorrak	<ul style="list-style-type: none"><li>Immigrazioari buruzko Euskal Plana (2003-2005)</li><li>Immigrazioari buruzko Bigarren Euskal Plana (2007-2009)</li><li>Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Hirugarren Euskal Plana (2011-2013)</li><li>Erakunde arteko Batzordea (ez-formala)</li></ul>
Erakunde barruko eta arteko koordinaziorako eta antolamendurako egiturak	<ul style="list-style-type: none"><li>Udal-teknikarien Udal Harrera Sarea</li><li>Erakunde barruko eta arteko protokoloak, lankidetzeta-esparru formalak eta abar, gai zehatzetarako: Genero-indarkeria eta Immigrazioa, JENAS eta abar.</li></ul>

Gizarte zibilarekin koordinatzeko eta antolatzeoko egiturak	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ EAEko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako foroak</li> <li>▪ Elkarrizketa Zibilaren Mahaia, Eusko Jaurlaritzaren eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorea biltzen dituenak. Foroaren bidez Jaurlaritzaren eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen arteko elkarrizketa bultzatu eta ahalbidetu nahi da, gobernantzarari begira, politikak diseinatu eta gauzatzeko garaian benetan eragingo duten akordioak lortzeko asmoz.</li> <li>▪ Harresiak Apurtuz koordinakundearekin hitzarmena; harreman-esparru hori finkatu zen elkarrekin arteko koordinazioko, sentsibilizazioko, prestakuntzako eta informazioko jarduerari laguntzeko.</li> </ul>
Gizartearen parte-hartzea sustatzeko tresnak	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ EAEko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako foroak</li> </ul>
Behatzeko eta zaintzeko tresnak	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Immigrazioari buruzko inkesta orokorra</li> <li>▪ Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia</li> <li>▪ Biltzen, agenteekin etengabe elkarrizketan egoteko dinamikak eta bere lanak ahalbidetzen dion neurria.</li> </ul>
Programak eta ekimenak garatu eta dinamizatzeko, laguntza eta asistentzia teknikoak emateko, trebakuntzako... tresnak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Biltzen: Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua</li> </ul>
Laguntza administratiboko eta kudeaketako tresnak	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren lantalde teknikoak</li> </ul>
Laguntza ekonomikoko tresnak	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lan eta Immigrazioko Ministerioaren eta EAEko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmena etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko jardunak garatzearen. Gizarteratzeko politika aktiboen sustapenaren barruan, etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko Laguntza Fondoaren gestiorako lankidetzaren esparruari eta etorkin horien hezkuntza-errefortzuari (2011) erreparatu dio hitzarmenak.</li> <li>▪ Laguntza-ildoak Tokiko Erakunde eta Gizarte Elkarrekin</li> <li>▪ Entitate eta sareetako hitzarmenak</li> <li>▪ Zuzeneko kontratazioa aurrekontu propioa izanik</li> <li>▪ Eta abar</li> </ul>

### 3.2. POLITIKA PUBLIKOEN ESKU-HARTZE ILDO NAGUSIAK

#### 3.1 Plangintza

- Immigrazioari buruzko euskal planetan adierazitako printzipio, jarraibide, egitura eta abarri dagokienez, Administrazioak arlo horretan konpromisoa hartu duela agerian uzteko eta transmititzeko balio izan dutela esan dezakegu, eta esparru ideologikoa eta posizionamendu

politikoa finkatzeko, baita hasierako eredu bat ezartzeko ere, beste maila batzuetako plangintzak eta koordinaziorako erreferenteak ahalbidetzearen.

- Garapen operatiboari eta hedaturari buruzko atalean, zailtasunak izan dira gauzatzeko garaian, batik bat, eskumenak esleitzeko eremuan, koordinazioan eta zeharkakotasunean. Ildo beretik, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean jasota zegoen, jada, honako defizit hauetan aurrera egiteko premia: erreferentzia Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Oinarritzko Araua, harrerarekin, integrazioarekin eta abarrekin loturiko lege espezifikoek "ordezko"; sail arteko eta erakunde arteko batzordeak sortzea eta abar.

### 3.2. Koordinazioa

- Erakundeen barruko eta arteko koordinazio eta antolamenduari dagokionez, baita gizarte zibilarekiko ere, Foroa osatzen duten erakunde eta administrazioen ustez Foroa abiaraztea oso positiboa izan da. Zailtasunak zailtasun, foroa elkartzeko, koordinatzeko eta dinamizatzeo egitura nagusia izan da sailetako arduradunentzat, Immigrazioari buruzko Planeko jardunak garatzen jarraitu ahal izateko. Foroaren espazioak berez ere balioa du, elkarrekin administrazioekin eta elkarrekin artean ere elkarriketa egonkorra lortzeko aukera eskaintzen duen heinean.
- Hala ere, sartzeko sistema hobetu gabe dago oraindik eta formulatutako itxaropen eta helburuak ere egokitu egin behar dira. Halaber, etorkinen elkarrekin eta horien ordezkarien konpromisoari eusteko zailtasunak (objektiboak eta ez hain objektiboak) izan direla onartu behar dugu, eta sortu bai baina konpondu gabeko eztabaiden ondorioz erabakiak hartzea atzeratu egin dela, aldez aurretik ezarritako bidean aurrera egitea eragotziz.

### 3.3. Ebaluazioa, ikerketa, zaintza eta abar.

- Ebaluazio-prozesuei dagokienez, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planaren diseinu, egitura, ezarpen eta emaitzetan egindako azterketak nabarmenduko ditugu; hortik ateratako ondorioak baliagarriak izan dira hurrengo plangintzetan etengabeko hobekuntza-prozesuari ekiteko (Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Hirugarren Euskal Plana (2011-2013)), betiere garatutako ebaluazio-prozesuetan atzeman diren jakintzak, esperientziak (ondorioztatutako jardunbide egokiak), indarrak, zailtasunak eta eragozpenak oinarritzat hartuta.
- Ingurunearen zaintza eta ikerketaren atalean, Ikuspegik lan handia egin du datuak bildu, landu, eguneratu eta zabaltzen, baita didaktikoki ere; udalari eta sektore-sistemetan azterketak zehazteko prozesua ere aipatu beharrekoa da. Gaur egun, Immigrazioari buruzko inkesta

orokorra sistematizatuta dago eta, aurreikuspenen arabera, datu gehiago eskainiko ditu eta politikak diseinatzeko oinarri izango da.

- Bestalde, historian osoan eta aldizka, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak laguntza-ildoak aktibatu izan ditu azterketa eta ikerketak egiteko honako hauen inguruan: migrazio-fenomenoaren hainbat alderdi, harrerako eta integrazioko prozesuak, talde espezifikoaren arazo espezifikoak eta abar.
- Era berean, EGGSk badu laguntza-ildo bat esku-hartze sozialaren arloko jakintza kudeatzearekin loturik eta, laguntza horietan, zeharkako lerroen presentzia biltzen eta balioesten da, besteak beste, immigrazioarekin, kulturartekotasunarekin eta abarrekin loturik.
- Bestalde, finantzaketa-esparruaz haratago, irizpide estrategiko eta lehentasunetan gehiago sakondu behar dela esan behar dugu.

#### **3.4. Programak eta ekimenak garatu eta dinamizatzea, laguntza eta asistentzia teknikoa...**


- Plangintzarako eta esku-hartzerako baliabideak garatzearekin, trebakuntzarekin, aholkularitza teknikoarekin eta kultura arteko ikuspegia zeharkako bihurtzeko zereginekin bat datorren elementu izaki, Biltzen erreferentziazko baliabide erabilgarri bihurtu da erakundeen eta gizartearen arloan. Laneko ildo eta arloen diseinuan atzerritarren eta tratu-berdintasunaren ikuspegiak txertatu ditu eta, horren ondorioz, immigrazio-politiken erreferentzia integraleko egitura bihurtu daiteke.
- Alabaina, hartzaileak arautuko dituen eredu bat formalizatzeari bultzada ematea falta da, baita hartzaile horiek lana zer baldintzetan egiten duten arautuko duena ere: ekonomikoak, bisualizaziokoak, kudeaketakoak eta abar. Era berean, akordio politiko eta instituzionalak sendotzeko bidean aurrera egin behar dugu, baita zerbitzu-zorroa eta horien hedadura sistematizatze bidean ere.

#### **3.5. Baliabide ekonomikoen esparrua**

Baliabide ekonomikoen aurreikuspen-eredua, hein handi batean, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak berak hartu du bere gain eta esfortzu handia egin du bai zuzenean, bai zeharka.



- Zuzenean:
  - Tokiko Entitateetara bideratutako laguntza ekonomikoak immigrazio-teknikariak kontratatzeko, diagnostikoak eta tokiko planak lantzeko, urteko programa egikaritzeko eta abar.
  - Gizarte-erakundeetara bideratutako laguntzak: gizartearen eta kulturaren arloko esku-hartze proiektuak, sozioedukatioak, hitzarmenak eta abar.
- Zeharka, programa zentralizatuak eta laguntza-zerbitzuak finantzatuz
  - Prestakuntza eta trebakuntza
  - Aholkularitza
  - Bitartekotza
  - Sentsibilizazioa
  - Itzulpena
  - Eta abar



# ILDO ESTRATEGIKOAK, HELBURUAK ETA OINARRIAK

Dokumentu honetan Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Euskal Plana 2011-2013 planaren egitura eta arkitektura bildu ditugu, betiere Jaurkitzaren Planak Egiteko Orientabideak dokumentuari jarraiki.

Jarraian, plangintza honen oinarri eta abiapuntu diren oinarrizko elementuak definituko ditugu, esku-hartzearen ardatz nagusiak definitzen dituzten ildo estrategikoak eta politika hau ezarrita jarraitu beharreko norabidea eta asmoa markatzen duten helburuak.

## **1. ILDO ESTRATEGIKOA: IMMIGRAZIOARI BURUZKO EUSKAL POLITIKA EGITURATU ETA ANTOLATZEA ERAKUNDE ARTEAN ETA ERAKUNDE BARRUAN.**

Euskal immigrazio-politika orain arteko Immigrazioari buruzko bi Euskal Planetan oinarritu izan da. Bi plan horien bidez, lehenik, etorkinak integratzeko harrera-lanean gobernauak eta erakundeek bete beharreko eginkizunari buruz kontzientziaztea lortu da; eta bigarrenik, printzipio, helburu eta tresnen arabera egituratzea. Immigrazioarekin loturiko politika publikoaren lehen fasea amaituta, orain politika horien heldutasun-fasean sartu garela esan dezakegu, eta fase horretan ezinbestekoa da integrazioko eta bizikidetasuneko politika publikoaren gobernantzaren erakunde-arkitektura egituratu eta egonkortzea, bai Eusko Jaurlaritzan, baita erakunde arteko dimentsioan ere, Foru Aldundi eta udalekin, baita arlo horretan garrantzitsuak diren beste gizarte-eragile batzuekin ere. Immigrazioarekin loturiko euskal politikaren ahulezia nagusietako bat hauxe da: hainbat erakunderen lidergo partekatua ahalbidetzeko tresna egituraturik ez izatea.

Erakunde arteko eremuan, ebaluazio-prozesuei esker aurreko planetan txertatutako neurrien ezarpen-prozesuaren berri izan dugu. Ildo beretik, sail eta erakunde gehienek teknikari arduradunen konpromisomaila handia sumatu dutela nabarmendu nahi dugu, Immigrazioari buruzko Euskal I. eta II. Planak garatzeko eta immigrazioaren fenomenoarekin loturiko gizarte-errealitatean esku hartzeko premiari dagokionez.

Halaber, aurreko Immigrazioari buruzko Euskal Planak immigrazioari buruzko beste hainbat planen eredu eta erreferentzia izan direla esan dezakegu, lurraldeari zein udalerrii gagozkiela. Gobernua fenomeno horrekiko sentsibilizatuta dago eta horren adierazgarri da planak landu eta garatu izana; horren guztiaren ondorioz, beste erakunde batzuek ere ildo berari jarraiki lanean hasi dira.

Dena den, esku-hartze arlo horretan inplikaturako agente eta interesdunekin (Stakeholders) alde aurreko azterketa egin zen eskaeraren nondik norakoak jasotzeko eta atzemandako hainbat egoeratan aurrera egiteko premia sumatu da. Ildo beretik, erakundeen arteko koordinaziorik eza da egoerarik kritikoena; izan ere, zenbait kasutan, erakunde bakoitzak modu independentean lan egiten baitu. Logikari jarraiki, koordinaziorik eza horrek arriskuan jartzen du politika publikoen ezarpenaren eraginkortasuna. Arlo horretan, gaur egun, arazo nagusietako bat hauxe da: dagoen informazio-sistema ez da nahikoa. Jatorria eta nazionalitatea aldagaiak ez daude integratuta estatistika-mailan eta, horren ondorioz, esku-hartzeak datu zehatzik gabe garatzen dira eta horrela askoz zailagoa da plangintzak eta ebaluazioak egitea, behar besteko bermeaz.

Immigrazioari buruzko beste plan bat abiarazteari begira, aurreko Planaren ebaluazioan premia bat diagnostikatu zen: erakunde barruko eta erakunde arteko koordinaziorako egiturak edo guneak sortzeko

premia. Koordinazio-egitura horiek ezinbestekoak dira Plan bat ezarri eta garatzeko, hainbat elementu eskaintzen eta eskura jartzen baitizkiote: zeharkakotasuna, inplikazioa, aholkularitza, laguntza eta abar. Azken batean, administrazio-entitateen euren arteko, eta entitate horien eta gizarte-sarearen arteko koordinazio-arkitekturaren esfortzua egin beharko dute jardunen euskarri izango den egitura sendotzeko eta printzipio nagusiekiko koherentzia, sinergiak, zeharkakotasuna eta ekimenak aktibatzen bideratutako akordioak bermatzeko. Hari berari jarraiki, hainbat mailatan sare-lana egiteko elkartrukerako guneak ahalbidetu, bultzatu eta koordinatu behar dira, administrazio guztien artean immigrazio-erloko diskurtso komuna landu ahal izateko, betiere aniztasunaren kudeaketa lanaren funtsezko printzipiotzat txertatuta.

Koordinazioko egitura bat indartzea behar-beharrezko printzipioa da, bai politikan (saietako arduradun politikoekin) bai maila teknikoan (saietako immigrazio-politiken arduradunekin). Gune horiek Planaren garapenean indarra eman, jarraipena egin eta laguntza emateko lagungarri izango dira eta, horretaz gain, informazioko, komunikazioko, prestakuntzako, zalantzak argitzeko, esperientziak eta jardunbide egokiak elkartrukatze eta abarretarako gune ere izango dira. Egitura horietan parte hartuz, immigrazio-neurriak gauzatzeko ardura dutenek babesa sumatzen dute prozesuan eta, hartara, gehiago inplikatzen eta nahasten dira.

Udal-esparruan, immigrazio-erloko politikak eta gizarte-zerbitzuak garatzeko garaian udalen garrantzia areagotu egin behar dela atzeman da, bereziki, aniztasunaren kudeaketari eta gatazken bitartekotzari dagokienez.

**Motibazioa:** Gaur egun, immigrazioaren eta Herritartasun politikak helduaroan daudenez, eta zeharkako politika izaki, politika horretan sartutako erakunde eta gizarte-eragile guztien arteko lankidetzaren egitura, informazio-sistema, mekanismo, prozesu eta forma guztiak ezarri eta finkatu behar dira, bikoiztasunak saihesteko eta bideratutako baliabideen efikazia eta eraginkortasuna maximizatzeko.

- 1.1 helburua: Euskal gizarteari eta eragileei —erakundeetakoak nahiz gizarte-erlokoak— erreferentzia-esparru konpartitu bat eskaintzea Euskadin immigrazioa kudeatzeko.

Helburu hori betetzeko, gizartearen, politikan eta erakundeetan immigrazioari buruzko eztabaida bultzatuko duen gizarte-akordio bat abiaraztea oso garrantzitsua da.

- 1.2 helburua: Eusko Jaurlaritzak immigrazioaren, Herritartasun eta kultura arteko bizikidetasunaren zeharkako politika diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko beharrezkoak diren tresna eta mekanismoak eskuratzea.

Helburu hori garatzeko, funtsezko bi lan-ildo proposatu behar dira:

- Lehen ildoaren oinarri jakintza eta ikerketa izango dira; erakunde edo organismo guztietan egiten diren azterketetan immigrazioaren ikuspegia txertatzeko lagungarri izango da eta, horretarako, Euskadin bizi diren etorkinen baldintza, premiak eta egoerak zehatz-mehatz ezagutzeko azterketak egin beharko dira. Horri esker, jardun eraginkor eta efizienteagoak definitu ahal izango dira migrazio-fenomenoaren esku-hartze arloetan.

- Bigarren ildoak koordinazio-premian oinarritzen da; hain zuzen ere, inplikaturako sailtako immigrazio-arloko politika publikoak koordinatzeko premian. Bi eskaera nagusiri erantzuten zaie, hau da, alde batetik, sail guztien topa gune izango den egituraren premiari eta, bestetik, koordinazio-mekanismo malguak sortzeari gai zehatzen inguruko batzorde/bilerak egiteko bi aldean artean.

- 1.2 helburua: Herritartasun eta integrazioaren aldeko lanean erakundeen arteko (Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) lankidetzaren egonkorra egituratzea.

Helburu hori lortzeko, lankidetzaren egonkorra eta sarekoa garatu behar da, EAEko immigrazio-politiken plangintza eta kudeaketa koordinatua indartzearen.

- 1.3 helburua: Herritartasun eta integrazioaren euskal politikaren gobernantza parte-hartzailearen mekanismoak berriz diseinatzea.

Egungo partaidetza-ereduetan, gobernantza parte-hartzailea gako-elementua da immigrazioari buruzko politika berriak kudeatzeko; hori dela-eta, eredu eraginkorra finkatu eta sendotu behar da, modu koordinatuan lan egiteko.

## 2. ILDO ESTRATEGIKOA: ENPLEGUA, PRESTAKUNTZA ETA ESKOLA ARRAKASTA ESKURAGARRI IZATEA EUSKADIN DAUDEN GIZA BALIABIDEAK MOBILIZATZEKO, ERABATEKO HERRITARTASUNA LORTZEKO ETA INTEGRATZEKO BIDEAK DIREN ALDETIK, PRODUKZIO SAREA INDARTZEAREN.

Azken urteotan herritar berri ugari iritsi da EAERA eta erakundeek esfortzu handia egin behar izan zuten, politika publikoak etorkinei harrera egitera bideratuta; aldiz, azkenaldian fluxuak txikitu eta etorkinak zertxobait egonkortu egin direnez, politika publikoen ardatza aldatu egin behar da. Lehen harrera baldin bazen, orain integrazioa eta bizikidetasuna dira. Aldaketa horren ondorioz, Euskadin epe ertain eta luzeko migrazio-proiektua duten pertsonak gizarteratzearekin loturiko helburuak lehenetsi eta bereziki nabarmendu behar dira. Gizarteratze hori lortzeko, enplegua eta hezkuntza dira gakoak eta, horretarako, politika publikoetan eragin behar da.

Enplegua oinarrizko alderdia da norberaren eta gizartearen garapenean; enpleguak bizi-proiektua gauzatzea ahalbidetzen du eta migrazio-mugimendu askoren arrazoi ere izaten da. Krisialdia hasi aurreko testuinguruan, migrazio-fluxuak eta horien egonkortzea zentzuz eta egoki kudeatu direla esan dezakegu.

Dena den, krisialdiaren ondorioz prozesu horren guztiaren gaineko zalantzak eta desitxuratzeko elementuak sartu dira. EAEn bizi diren Atzerriko Etorkinen gaineko Inkestako (AEI 2010) egungo datuen arabera, jarduerari buruzko adierazpen orokorretan oinarrituta, 34.539 langabe potentzial daudela esan dezakegu, hau da, adin potentzialki aktiboan dauden atzerritarren % 23,4. Gainerako % 24,5a biztanleria ez-aktiboa izango litzateke. Aurreko zifren arabera, langabezia-tasa % 31 da eta jarduera-tasa, aldiz, % 75,5. Halaber, etorkinen jatorrizko herrialdeari erreparatuz gero, alde esanguratsuak ikusiko ditugu jardueran, okupazioan eta langabezia. Izan ere, 49 puntuko aldea dago okupazio-koefiziente handiena eta txikiena duten taldeen artean: txinatarren koefizientea 79,4 da eta Senegaldik edo Magrebetik ez datozen afrikarrena, aldiz, 29,8 (AEI 2010).

Datuek adierazten dutenez, epe laburrean krisialdiaren ondorioz enplegu-aukerak mugatu egingo dira baina ez dugu ahaztu behar immigrazioak eginkizun garrantzitsua beteko duela berriro ere epe luzeko lan-indarraren premiak estaltzen. Gainera, datozen urteotan migrazio-fluxu positibo hori gertatuko ez balitz, "potentzialki aktiboa den biztanleen murrizketa are nabarmenagoa izango litzateke" dio EGABek *Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondorioak EAEko ekonomia eta gizartean (2011)* izeneko dokumentuan. Hori horrela izanik, etorkinen gizarteratzea biziki garrantzitsua izango da oraindik ere, baita erronka bat ere gizarte-kohesioari dagokionez, eta politika egokiak beharko dira. Hartara, giza kapitala (autoktonoak eta etorkinak sartuta) euskal gizartearen hazkunde ekonomikoaren gako-eragilea izango da.

Dena dela, puntu horretan dauden erronka handiak ez ditugu alde batera utzi behar. Etorkinek, ohiko moduan, bi egoerari egin behar izaten diete aurre lan-merkatuan sartu eta hasierako urtetan: laneko babesgabezia eta lan-baldintza kaskarrak. Bestalde, EAEn dagoen prestakuntzako eta enpleguko eskaintzaren berri ez dutenez, etorkinen enplegarritasuna oso txikia izaten da kasu askotan. Gaur egun, lan-merkatuan berdintasun-egoeran sartzeko eragozpen nagusi izaten dira arazo horiek.

Halaber, gabezia erantsiek ere eragozten diete aurrerabidea. Esate baterako, lan-esplotazioaren jarraipenik eza, batik bat, eraikuntzaren sektorean eta etxeko langileen sektorean. Era berean, etorkinei maula egiten dieten iruzurrezko enpresak ere badirela atzeman da eta etorkinen erregularizazio-prozesua "ahalbidetzearren" dirua eskatzen diete.

Prestakuntza-prozesuei dagokienez, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak hasiera-hasieratik sustatu du etorkinen trebakuntza eta lanerako prestakuntza. Formalki, lan-ildo hori

immigrazioari buruzko plan guztietan konprometitu da, betiere etorkinen enplegarritasuna hobetzeko asmoz.

Bestalde, hezkuntzari dagokionez, gero eta etorkin gehiagok lortzen du hezkuntza-sisteman sartzea. Ikuspegiren datuen arabera, 2010-2011 ikasturtearen hasieran guztira 30.406 ikasle etorkin zeuden EAEko ikastetxeetan. Horrek esan nahi du 2005/2006 ikasturtearekin alderatuta 16.500 ikasle gehiago zirela. Helduen hezkuntzari erreparatuta, AEI 2010 inkestako datuei jarraiki, 16 urte eta gehiago dituzten jatorri atzerritarreko biztanleen % 19,5 (hau da, 29.198 pertsona) ikasten ari da, % 11,7 ikasketa arautuak egiten da (17.553 pertsona) eta % 9 ikasketa ez-arautuak (13.393 pertsona).

Dena den, hezkuntza-sisteman txertatzearen ondorioak ez dira beti nahi genituzkeenak. Oraindik ez dago datu erabakigarriarik kolektiboaren eskolatzeko-prozesuari buruz, egia da. Baina hainbat indize kezkatzeko modukoak dira eta gaiari buruzko hausnarketa eragin beharko ligukete. Europako Batzordeak berriki egin duen azterlan baten arabera, Estatuan eskola uztearen tasa % 31,2 da, guztira, eta % 45 etorkinen artean. Datu horiek kezkarriak dira eta bigarren belaunaldien kalteberatasun-egoerak kroniko bihurtzea saihesteko mekanismo eta estrategiak abiarazi beharko lirakeke; izan ere, beste hainbat tokitan ikusi dugunez, gizarte-kohesioa arriskuan jar dezakete eta gatazka-iturri izan.

Egoera horren aurrean, etorkinen eskola-porrotari aurre egin behar zaio. Horretarako, egoera hori modu erregularrean kuantifikatu eta aztertu behar da eta ikasle etorkin potentzialak hezkuntza-sistemaren barruan jarraitzeko estrategiak edo ekintzak bilatu beharko dira; horrekin loturiko proposamen egokia eginez gero, gero eta gazte etorkin gehiago sartuko dira derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan. Arlo horretan, ikastetxeei behar adina baliabide —pertsonak eta materialak— eman behar zaizkie ezarritako helburuak betetzearren. Era berean, ikasleen gurasoen isolamendua urratu eta eskola-jardunaren ohiko eremuetan txertatzea lortuko bagenu, hezkuntza-arloko neurrien arrakasta lortuko genuke, ziurrenik.

Ondorio gisa zera esan dezakegu, etorkinak gizarteratzeko eta integratzeko bi ardatz nagusi daude: enplegua, gaur egun, eta epe ertainera; eta hezkuntza, epe ertain eta luzera. Bestela esateko, etorkinen kolektiboaren integrazio-maila neurtzeko adierazle nagusia eta helburu handiena haxe izango da: etorkinaren aitzak edo amak enplegua izatea eta semeak edo alabak hezkuntza-integrazioa ziurtatua izatea, enplegu hobea lortzeko aukerak handituz. Gure ingurunean, beste garai batzuetan eta beste migrazio-prozesu batzuekin burutu izan da prozesu hori, arrakastaz burutu ere, eta gaur egun eta etorkizunean egoki egituratzen jakin behar dugu.

**Motibazioa:** enplegua integrazio-prozesuaren funtsezko elementua da, eta ezinbestekoa da etorkinek harrera-gizartean parte har dezaten, egoera administratibo erregularra lortu eta horri eusteko oinarrizko mekanismo den heinean. Bestalde, hezkuntza eta eskola-erakundea gako-elementuak dira gizarte-mugikortasuneko prozesuetan.

- 2.1 helburua: Euskadin bizi diren pertsonak lan-merkatuan sartzen laguntzea, enplegarritasunaren eragozpenak eta mugak (lege-arloan, hizkuntza, prestakuntza eta abar) ezabatzen lagunduz.

Helburu horrek etorkinak lanerako aktibatzeke ezinbestekoak diren esku-hartze prozesuetan eragin behar du, hainbat mekanismoren bitartez; hala nola, orientazioa, enplegua sustatzea eta lan-bitartekotza.

Helburu hori betetzeko, etorkinak enplegu-zerbitzuetara berdintasun-baldintzetan sartzea ere bultzatu behar da. Espazio horretan, hizkuntzak ikasteko sistemak eta zerbitzu publikoak ezagutarazteko eta hobetzeko erabiltzen diren aholkularitzako eta informazioko tresnak bereziki landu behar dira, euskal gizartean dauden eragozpenak —hizkuntzarekin, legeekin, gizartearekin eta kulturarekin loturikoak— gainditu ahal izateko.

- 2.2 helburua: Euskadin dagoen giza kapitala aktibatzen laguntzea, gaitasun profesionalen onarpena bultzatuz eta ekintzailtza sustatuz.

Garatu beharreko proiektuak Euskadin bizi direnen lanbide-arloko gaitasun eta ezaugarriari balioa ematera bideratu behar dira.

- 2.3 helburua: Euskadiren produkzio-egiturari egokitutako prestakuntza eta gaitasun profesionalak indartzea.

Helburu hori betetzeko, lanerako prestakuntza arautua indartu behar da, prozesu hori funtsezko tresna izango baita Euskadin langile kalifikatu prestatuen eta motibatuen sarea lortzeko, sortzen diren lanpostuak okupatzeko prest.

Arlo horretan, heziketa osagarri ere landu behar da, etorkinei lan-merkatuan sartzen laguntzeko beharrezkoak diren gizarte-trebetasunak eta oinarrizko gaitasunak eskaini ahal izateko.

- 2.4 helburua: Eskola-arrakastaren indizea eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan sartzen diren ikasle etorkinen kopurua handitzea.

Helburu hori garatzeko, kulturartekotasunaren ikuspegia barnean hartzen duen Eskola Inklusiboaren bilaketan inplikaturako agenteak sentsibilizatu, prestatu eta orientatzeko lan egin behar da.



### 3. ILDO ESTRATEGIKOA: ZERBITZU ETA PROGRAMA PUBLIKOETAN ENPLEGUA SARTU ETA KUDEATZEA

Etorkinak euskal gizartean berdintasunean txertatzeko oinarritzko elementu bat zera da, etorkinei zerbitzu publikoetarako sarbide normalizatua sustatu eta bermatzea. Hortaz, euskal administrazioak baliabideak eta zerbitzuak kudeatu eta bermatu behar ditu askotariko biztanleriaren premia eta ezaugarrietara egokituta; izan ere, abiapuntuko egoerak oso bestelakoak izan arren, *berdintasunean elkarrebizi ahal izateko* baliabideak izan nahi lituzke.

Gai horrekin jarraituz, etorkinak integratzeko beste elementu garrantzitsu bat etxebizitza da. Bizilekua faktore baldintzatzailea da eta beti ez da behar besteko bermeekin betetzen. Etxebizitza lortzea zaila izaten da, batzuetan, etxebizitzaren jabeek dituzten aurreiritziak direla-eta.

Osasun-sistema publikoaren eta osasun-asistentziaren zerbitzuertarako sarbide normalizatua ere bermatu behar zaie etorkinei. Arlo horretan, honako arazo hauek nabarmenduko ditugu: lan-baldintzen ondorioz sortutako oztopoak, bizilekuaren inguruko gizarte-baldintzatzaileak eta, azkenik, elkar ezin ulertua hizkuntzarenatik eta kultura-arloko ezberdintasunengatik. Horiek dira, zalantzarik gabe, etorkinei osasun-zerbitzuertarako sarbide normalizatua izatea eragozten dieten faktore nagusiak eta horiei erreparatu beharko diegu.

Bestalde, gizarte-baliabideertarako sarbide normalizatua ere bermatu behar zaie etorkinei. Herritar orok eskubidea du administrazioaren babesa jasotzeko eremu jakin batzuetan, eta etorkinen kasuan, premia hori areagotu egiten da euren egoera eta baldintzapenen ondorioz. Hori horrela izanik, esfortzu handia egin beharko da gizarte-laguntzak lortzeko sistema bat aplikatu dadin, betiere bazterkeria-arriskuaren egoerak gainditzeko eta gure Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzea xede izanik.

Bukatzeko, berme juridikoei dagokienez, zehazgabetasun juridikoak eta zailtasunak (hizkuntza, kultura eta abar) gainditzeko ahalegina egin behar da, etorkinen eskubideak eremu guztietan errespetatuko direla bermatzearen.

**Motibazioa:** Zerbitzu publikoek askotariko herritarrak artatzeko gai izan behar dute, aniztasun hori berdintasunezko sarbidearen eragozpen izan ez dadin.

- 3.1 helburua: Osasunaren, gizartearen, etxebizitzaren, justiziaren eta segurtasunaren arloko zerbitzuetarako sarbide normalizatua bermatzea, berdintasunean.

Helburu hori betetzeko, programa publikoei eta, bereziki, etorkinengan inpaktu handia duten programei erreparatu behar diegu. Planaren helburu nagusia zera da, programa guztietan biztanleria eskatzailearen ezaugarri, premia eta aniztasuna kontuan izatea. Ikuspegi horri “aniztasunaren kudeaketa” esaten zaio.

Aurreko ikuspegiaren osagarri, eta berdintasuneko sarbidea ahalbidetzearen, “ekintza positiboko” programak garatzea ere garrantzitsua da, etorkinen problematika zehatzetara bideratutako programa espezifikoak sortzeko; besteak beste, zerbitzu publikoei buruz etorkinei iristen zaien informazioa hobetzea eta sustatzea (itzulpen-sistemak, material grafikoa, liburuxka informatiboak...). Ildo beretik, zerbitzu publikoetarako sarbide normalizatua izateko zailtasunak — gizartearen, kulturaren, prestakuntzaren eta abarren arlokoak— gainditzeko tresnak txertatu beharko dira.

- 3.2 helburua: Zerbitzu publikoetako (hezkuntza, osasuna, enplegua, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, justizia, segurtasuna) langileen artean prestakuntza bultzatzea kultura arteko gaitasunetan eta aniztasunaren kudeaketan.

Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da prestakuntza iraunkorreko ekintzak garatzea, zerbitzu publiko hobea eskaintzearen eta zerbitzu horiek eskatzen dituzten biztanleen premia eta ezaugarrietara egokituta. Arlo horretan hiru lan-ildo atzeman ditugu: Jaurlaritzako langileei zuzendutako prestakuntza IVAPen bitartez; Tokiko Erakundeetara bideratutako prestakuntza; eta bukatzeko, hirugarren sektorerako prestakuntza-eskaintza.

#### **4. ILDO ESTRATEGIKOA: PARTE-HARTZEA, KULTURA ANIZTASUNA ETA BIZIKIDETASUNA**

Laugarren ildoan biztanleriaren parte-hartze integrala da xedea, biztanleria autoktonoa eta etorkinak ere kontuan izanik, horixe baita Herritartasun bizikidetasun eta integrazio hobea lortzeko tresna egun bizi dugun kultura arteko gizarte honetan. Alegia, helburu nagusia etorkinak xede-gizartearen parte-hartze eremu komunitatean txertatzea da, horixe baita etorkinen kolektiboak komunitatearen eguneroko gizarte-bizitzan integratu eta normalizatu izanaren adierazgarri argiena.

Esan gabe doa puntu hori erronka handia dela bai Herritartasuntzat, baita EAEko biztanleen arteko harremanak eta bizikidetasuna egituratzen dituzten administrazio, gizarte-erakunde eta organismoentzat ere. Parte-hartze aktiboaren bitartez hezi egiten da eta erabateko integrazioa ahalbidetzen da; horretaz gain, gizarte osoarentzako balio aberasgarriak sustatzen ditu.

Hala ere, etorkinen eta parte-hartze formaleko espazioen arteko interakzioa ez da nahi bezain oparoa. Are gehiago, parte-hartzea oso txikia da egoera normalizatzeko zailtasunak dituzten etorkinen kolektiboen kasuan. Hori dela-eta, akatsak onartu eta egiazko diagnosia egin behar da parte-hartzeari dagokionez, eta esfera guztietan txertatzea ahalbidetu behar da, pertsona guztiak naturaltasunez integratuko dituen bizikidetasuneko eta parte-hartzeko ereduen bitartez.

Aipatu behar dugu etorkinen elkarrekin parte-hartzerako potentzial handiena izan dutela azken urteotan; izan ere, kideen arteko elkargune izateaz gain, gizartearekin elkar eragiteko plataforma ere izan baitira. Errealitate hori pertzepzio batean oinarritzen da pertzepzio hori erreal eta orokortua baitago, hein batean; hain zuzen ere, elkarrekin bildutako etorkinen kolektiboaren asmoak oraindik ere elkartasunera, elkarri laguntzera, nortasuna sendotzera eta kultura ikusaraztera bideratzen direla. Horregatik, etorkinen kolektiboek elkarrekin formalak osatzea nahitaezko izapidetzat hartzen da baliabideak eta elkarriketa-gaitasuna lortzeko.

Dena den, parte-hartzearen helburuak xede handiagoak izan beharko lituzkeela esan behar dugu; etorkinak egitura orokorretan (gizartearen, sindikatuen, kulturaren... arloko erakundeak) txertatzea sustatu behar dugu, segregazioa saihestu eta erabateko integrazioa lortzearren.

Etorkinak bizilaguntzat hartu behar ditugu, askotariko herritarrez osatutako herrialde bateko bizilaguntzat; ahal den neurrian, atzerritarrak "kanpoko eta arrotz" ikusten dituen pertzepzioa gainditzeko ahalegina egin behar dugu.

**Motibazioa:** Erabateko gizarteratzea eta herritartasuna erabat baliatzea ez dira guztiz osatuko plataforma sozial normalizatueta parte hartzen ez bada. Bestalde, euskal gizartea askotarikoa dela onartu eta ikusaraztea sustatu behar da, aniztasun horrek esfera publikoa aberasten duela, eskubide eta betebeharren berdintasunetik abiatuta.

- 4.1 helburua: Etorkinen parte-hartzea eta integrazioa sustatu eta indartzea erakunde sozialetan, sindikatuetan, enpresa-erakundeetan, eskoletan, kultura-erakundeetan eta erakunde politikoetan.

Helburu horretan ezinbestekoa da prestakuntza-tresnak lantzea, parte-hartze konpartitua ahalbidetuko duten tresnak lantzea; aldi berean, administrazioak koordinazioko eta lankidetzako formulak garatu beharko ditu.

Garatu nahi dugun ereduari, dimentsio kolektiboa eta indibiduala uztartu nahi ditugu, osotasun globaltzat hartzen baititugu eta osotasun horretan nortasunarekin, kideetasunarekin eta abarrek

loturiko gaiak Herritartasun rol eta eskubideak baliatzearekin bateragarri izan beharko lukete. Hona hemen Herritartasun rol horiek: langileak, kontsumitzaileak, ikasleen gurasoak, bizilagunak eta abar. Hori horrela izanik, osagarritasun-eredua izan beharko luke, honako hauen arteko dikotomia urratuz: alde batetik, nortasunarekin loturiko elkartegintza, nazionaren, erlijioaren eta kulturaren aldetik homogeneoa dena; eta bestetik, gizarte-garapenarekin eta demokrazian sakontzearekin konprometitutako erakunde zibil moduan aurrera egitea.

- 4.2 helburua: Espazio publikoan eta komunikabideetan Euskadiko herritar berrien errealitatea onartu eta ikusaraztea sustatu behar da, baita Euskadiko kultura-aniztasuna ere, kultura horien ezagutza eta balioespena indartuz.

Helburu hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzaren sailtako esku-hartze eremu bakoitzetik garatzen diren komunikazioko eta sentsibilizazioko kanpaina, programa eta proiektu guztietan aniztasunaren kudeaketaren ikuspegia txertatzea oso garrantzitsua da. Baina komunikabideetan lan egiten duten profesionalen ikuspegi horren inguruko prestakuntza ematea ahaztu gabe.

- 4.3 helburua: Askotariko jatorriko pertsona eta taldeen artean bat egiteko, onarpeneko eta bizikidetasuneko espazioak indartzea, betiere kide izatearen sentimendua bultzatzen badute.

Herritartasun gizarte-bizitza garatzen den eguneroko espazioetan —eskolan, auzoan...— zentratutako programak landu eta bultzatzea, kulturartekotasunean eta aniztasunean oinarritutako bizikidetasuna sustatuz.

## **5. ILDO ESTRATEGIKOA: DISKRIMINAZIOAREN ETA XENOFIARIAREN AURKAKO BORROKA**

Plan honen eta aurreko plangintzen lan-ildo nagusietako bat zera da, nazionalitatean, arrazan edo erlijioan oinarritutako diskriminazio oro ezabatzea, giza eskubideak, eskubide zibil eta politikoak, nahiz ekonomikoak, sozialak eta kulturalak betetzen direla bermatuz.

Hainbat azterlanen arabera, immigrazioari dagokionez, aurreiritziak zabaldu eta Herritartasun kezka gora egin du. Gure inguruko gizarteetan ere joera hori da nagusi eta, Euskadiren kasuan, honako datu hauetan ikusten da: Immigrazioaren Euskal Behatokiaren iritzi-barometroan eta Lehendakariaren Ikerketa Soziologikoko Kabinetearen Soziometroan. Bi azterlan horiei jarraiki, Euskadiko arazoaren artean immigrazioa aipatzen duten Herritartasun kopurua nabarmen handitu da azken 5 urteko epean.

Hazkundera atzeman den arren, EAEn diskriminazio-maila orokorra txikia da, baina ezin dugu ukatu izan badenik: *“2010. urtean, lau etorkinetik batek atzematen du EAEn diskriminazio-egoerak gertatzen direla nahiko maiz, batik bat, kritikak eginez mehatxu ekonomikoa izateagatik, itxura fisikoarengatik baztertuta*

*edo, besterik gabe, ez ikusiarena eginez. Dena dela, etorkinen artean bada osasun-egoera onaren eta bizimoduarekin gustura egotearen pertzepzioa eta hori diskriminazio-egoera gutxiago atzematearekin loturik dago, euskal Herritartasun aldetik balioespen handiagoa sentitzearekin eta etorkinekiko sentimendu positibo gehiago eta negatibo gutxiago izatearekin". (Ikuspegi – Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia Sailaren azterlana)*

2010eko AEI inkestako datuen arabera, diskriminazioarekin loturiko arazoek garrantzia handia da oraindik EAEn. Hala eta guztiz ere, jatorriz atzerritarrak diren biztanle gehienek diote ez dutela arazorik izan integratzeko, ez pertsona edo talde autoktonoekin, ezta beste etorkin taldeekin ere, jatorrizko herrialde berekoak edo beste herrialde batekoak izanda ere.

**Motibazioa:** Integrazioaren aldeko lanean hasi berri den ildoak da tratu-berdintasuna, harrera-fasea gainditu ostean. Arrazakeria eta xenofobia gizarte-kohesioaren kontrako fenomenoak dira eta aurreiritziekin elikatzen dira. Krisialdi ekonomikoetan, bereziki, fenomeno horien aurkako borroka indartu behar da.

- 5.1 helburua: Arraza-diskriminazioaren aurkako mekanismo instituzionalak indartzea, diskriminazio hori izan badela adierazten duten datu eta adierazleak barnean hartuta.

Helburu hori betetzeko, diskriminazioari, arrazakeriari eta xenofobiari buruzko informazio-sistema sendo eta egonkorra behar izango da. Sistema horrek tresna izan behar du, arlo horretako jardunen programazioa ahalbidetu, egokitu eta zehaztuko duen tresna.

Arlo horretan garatu beharreko beste elementu bat ere aipatuko dugu: tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eremuko sentsibilizazioko eta prestakuntzako prozesuak, gure gizartean arrazakeriaren eta xenofobiaren fenomenoak geldiarazteko tresnatzat.

- 5.2 helburua: Diskurtso publiko barne-hartzailea sustatzea arrazakeriaren aurkako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio publiko instituzionalaren bidez.

Helburu horretan, Euskadin dagoen aniztasunaren pertzepzio positiboa transmititzen duten komunikazio-elementuak txertatzea funtsezkoa da. Bestalde, Diskriminaziorik ezari eta Tratu-berdintasunari buruzko sentsibilizazio-programa bat lantzea ere oso garrantzitsua da.





# JARDUNERAKO PROIEKTUAK

# 1. Immigrazioaren eta Herritartasun euskal politika egituratu eta antolatzea erakunde artean eta erakunde barruan .

1.1 Euskal gizarteari eta eragileei —erakundeetakoak nahiz gizarte-arlokoak— erreferentzia-esparru konpartitu bat eskaintzea Euskadin immigrazioa kudeatzeko.

Proiektua	Zuzendaritzak/Erakundeak (1)
1.1.1. Euskadin Immigrazioaren aldeko Itun Sozial bat bultzatzea.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

1.2 Eusko Jaurlaritzak immigrazioaren, herritartasun eta kultura arteko bizikidetasunaren zeharkako politika diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko beharrezkoak diren tresna eta mekanismoak eskuratzea.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
1.2.1. Sail arteko batzordea sortu eta abiaraztea.	Sail-zuzendaritza guztiak, honako hauek nabarmenduta:  - Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza - Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza - Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza - Justizia Zuzendaritza - Ertzaintzaren Zuzendaritza - Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza - Kanpoan diren Euskal Herritartasuntzako eta Gizataldeentzako Zuzendaritza

(1) Proiektua garatzeko ardura duen Zuzendaritza/Erakundea.



<p>1.2.2. Immigrazioaren arloko jakintza bultzatu, koordinatu eta kudeatzea, jarduna hobetzearen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EUSTAT</li> <li>- Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza</li> <li>- Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza</li> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> <li>- Gazteria Zuzendaritza</li> <li>- Ertzaintzaren Zuzendaritza</li> <li>- Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza</li> <li>- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza</li> <li>- Kanpoan diren Euskal Herritartasuntzako eta Gizataldeentzako Zuzendaritza</li> <li>- Droga Gaietako Zuzendaritza</li> <li>- Emakunde - Idazkaritza Nagusia</li> </ul>
<p>1.2.3. Biltzen Integrazioko eta kultura arteko bizikidetzarako zerbitzua sendotzea, aniztasunaren kudeaketako politiketan prestakuntza, aholkularitza eta laguntza emateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>

1.3 Herritartasun eta integrazioaren aldeko lanean erakundearen arteko (Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) lankidetzaren egonkorra egituratzea.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
<p>1.3.1. Udalerriekin konpartitutako lana indartzea, harreraren, integrazioaren eta kultura arteko bizikidetasunaren aldeko sare-lana formalizatuz, zabalduz eta indartuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>
<p>1.3.2. Erakunde arteko akordioak egitea aniztasunaren kudeaketari, kulturartekotasunari, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko prestakuntzako edukiak eta ekintzak txertatzearen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>
<p>1.3.3. Foru Aldundiekin aldizkako elkarlanerako espazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>

1.4 Herritartasun eta integrazioko euskal politikaren gobernantza parte-hartzailearen mekanismoak beriz diseinatzea.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
1.4.1. Foroa berritzea (Dekretu arautzailea).	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
1.4.2. Dauden gobernantza-mekanismoetan genero-ikuspegia integratzea.	- Emakunde - Idazkaritza Nagusia

## 2. Enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakasta eskuragarri izatea, baliabideak mobilizatzeko, erabateko herritartasuna lortzeko eta integratzeko bideak diren aldetik

2.1 Euskadin bizi diren pertsonak lan-merkatuan sartzen laguntzea, enplegarritasunaren eragozpenak eta mugak (lege-arloan, hizkuntza, prestakuntza eta abar) ezabatzen lagunduz

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
2.1.1. Lanbiden "aniztasuna kudeatzeko" unitatea sortzea, enpleguaren sustapena, bitartekotza eta orientazioa eskuragarriago egiteko.	- Lanbide
2.1.2. Hizkuntzak (gaztelania eta euskara) ikasteari bultzada ematea, enplegua lortzeko gako-elementua den aldetik.	- Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza - Hizkuntza politika
2.1.3. Atzerritarren arloko arreta juridikoa bai erabiltzaileentzat, bai profesionalentzat.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
2.1.4. Pertsonak zaintzearen eta etxeko zerbitzuaren arloa aztertzea, enplegu-nitxo den aldetik.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
2.1.5. Gazte atzerritarrei zuzendutako gizarteratze-ibilbideak.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

2.2 Euskadin dagoen giza kapitala aktibatzen laguntzea, gaitasun profesionalen onarpena bultzatuz eta ekintzailtza sustatuz.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
2.2.1. Etorकिन lanbide gaitasunak egiaztatzeke prozesua sustatzea.	- Lanbide - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
2.2.2. Ekintzailtza indartzea eta ekintzaileei babesua ematea.	- Lanbide

2.3 Euskadiren produkzio-egiturari egokitutako prestakuntza eta gaitasun profesionalak indartzea.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
2.3.1. Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan eta Lanbide Prestakuntzako Zentroetan harrera sistematikoa egiteko prozesua, ikasteko ibilbideak barnean hartuta.	- Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza
2.3.2. Etorकिनak lanerako prestakuntzan eta prestakuntza-zikloetan sar daitezzen ahalbidetzea eta sustatzea.	- Lanbide Heziketako Zuzendaritza - Droga Gaietako Zuzendaritza - Lanbide

2.4 Eskola-arrakastaren indizea eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan sartzen diren ikasle etorकिन kopurua handitzea.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
2.4.1. Kultura arteko ikuspegia (prestakuntza eta materialak lantzea, zabaltzea eta jarraipena egitea) txertatuta duen eskola inklusiboa garatzea.	- Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritza - Droga Gaietako Zuzendaritza
2.4.2. Herrerako, orientazioko eta inklusioko prozesua hezkuntza-eremuan, hizkuntzak ikastea eta titulazioak baliozkotzea barnean hartuta.	- Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritza
2.4.3. Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan esperientzia pilotua garatzea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen senitartekoei prestakuntza emateko.	- Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza

### 3. Zerbitzu eta programa publikoetan aniztasuna sartu eta kudeatzea

3.1. Osasunaren, gizartearen, etxebizitzaren, justiziaren eta segurtasunaren arloko zerbitzuetarako sarbide normalizatua bermatzea, berdintasunean.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
3.1.1. Aniztasuna kudeatzea Osasunaren arloan.	- Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza
3.1.2. Aniztasuna kudeatzea Etxebizitzaren arloan.	- Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza
3.1.3. Aniztasuna kudeatzea Berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan.	- Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza - Emakunde - Idazkaritza Nagusia
3.1.4. Aniztasuna kudeatzea Justizia eta Segurtasunaren arloan.	- Ertzaintzaren Zuzendaritza
3.1.5. Aniztasuna kudeatzea Gizarte Zerbitzuen arloan.	- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza
3.1.6. Aniztasuna kudeatzea Gazteriaren arloan.	- Gazteria Zuzendaritza

3.2 Zerbitzu publikoetako (hezkuntza, osasuna, enplegua, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, justizia, segurtasuna) langileen artean prestakuntza bultzatzea kultura arteko gaitasunetan eta aniztasunaren kudeaketan.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
3.2.1. Tokiko Erakundeetara zuzendutako urteko prestakuntza-eskaintza aniztasunaren kudeaketaren, atzerritarren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan.	- Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

<p>3.2.2. IVApekin lankidetzaren esparrua garatzea aniztasunaren kudeaketari, kulturartekotasunari, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko prestakuntzako edukiak eta ekintzak txertatzearen.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- IVAP</li> <li>- Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza</li> <li>- Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza</li> <li>- Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza</li> <li>- Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza</li> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> <li>- Justizia Zuzendaritza</li> <li>- Gazteria Zuzendaritza</li> <li>- Lanbide</li> <li>- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia</li> </ul>
<p>3.2.3. Hirugarren sektoreko erakundeetara bideratutako Prestakuntza Esparrua.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>

## 4. Parte-hartzea, kultura-aniztasuna eta bizikidetasuna

4.1 Etorrinen parte-hartzea eta integrazioa sustatu eta indartzea erakunde sozialetan, sindikatuetan, enpresa-erakundeetan, eskoletan, kultura-erakundeetan eta erakunde politikoetan.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
<p>4.1.1. Gizarte-arloko parte-hartzea sustatzera bideratutako talde eta pertsonen laguntza eta prestakuntza emateko eskaintza.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>
<p>4.1.2. Elkartegintza indartzeko laguntzak aplikatzea, integrazioa eta gizarte-arloko parte-hartzea ardatz izanik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakunde - Idazkaritza Nagusia</li> <li>- Gizarte Gaietako Sailburuordetza</li> </ul>
<p>4.1.3. Herritar Etorrinen Integrazioa eta Partaidetza Sozialerako Foroa sendotu eta dinamizatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza</li> </ul>

4.1.4. Familiak ikastetxean parte hartzea.	- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza
4.1.5. Etorkinen parte-hartzea sustatzea; hirugarren sektoreko gizarte-erakundeetan eta horiek biltzen dituzten gizarte-sareetan.	- Gizarte Gaietako Sailburuordetza. - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

4.2 Espazio publikoan eta komunikabideetan Euskadiko herritar berrien errealitatea onartu eta ikusaraztea sustatu behar da, baita Euskadiko kultura-aniztasuna ere, kultura horien ezagutza eta balioespina indartuz.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
4.2.1. Kanpaina publikoetan kulturartekotasunaren ikuspegia txertatzea eta ikusaraztea.	- Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritza - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza - Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza - Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza - Emakunde - Idazkaritza Nagusia
4.2.2. Kultura arteko ikuspegia txertatzea Kulturen aldeko Herritar Kontratuan.	- Kultura Sustatzeko Zuzendaritza
4.2.3. Profesionalentzako prestakuntza-programa.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

4.3 Askotariko jatorriko pertsona eta taldeen artean bat egiteko, onarpeneko eta bizikidetasuneko espazioak indartzea, betiere kide izatearen sentimendua bultzatzen badute.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
4.3.1. Ikastetxea eta hezkuntza-ingurunea, bat egiteko eta parte hartzeko espazioak.	- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza
4.3.2. Parte-hartze konpartituko espazioak indartzea, euskara integrazio-elementutzat hartuz.	- Hizkuntza politika
4.3.3. Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetan boluntarioak txertatzeko esperientzia pilotua garatzea, gizarte-ingurunearekiko harremanak eta ikaskuntzak sustatzearen.	- Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza.

4.3.4. Diru-laguntza ildoak kulturartekotasuna zeharkako ildotzat duten hirugarren sektoreko jarduerentzat.	- Gizarte Gaietako Sailburuordetza
4.3.5. Gazteek bat egiteko espazioak indartzea.	- Gazteria Zuzendaritza

## 5. Diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka

5.1 Arraza-diskriminazioaren aurkako mekanismo instituzionalak indartzea, diskriminazio hori izan badela adierazten duten datu eta adierazleak barnean hartuta.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
5.1.1. Diskriminazioaren errealitateari buruzko jakintza sortuko duen informazio-sistema bat diseinatu eta eratzea.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
5.1.2. Diskriminazioaren prebentziorako tresna eta mekanismoak sortu eta erabiltzea (informazioa, prestakuntza, orientazioa, sensibilizazioa eta salatze mekanismoak).	- Giza Eskubideen Zuzendaritza - Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
5.1.3. Gizarte-erakundeekin lantalde bat abian jartzea.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

5.2 Diskurtso publiko barne-hartzailea sustatzea arrazakeriaren aurkako informazio, sensibilizazio eta komunikazio publiko instituzionalaren bidez.

Proiektua	Zuzendaritzak / Erakundeak
5.2.1. Komunikabideetako profesionalekin azterketak eta kontrasteak egiteko foroa, diskriminazioari, arrazakeriari eta xenofobiari buruz.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
5.2.2. Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako sensibilizazio-programa.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
5.2.3. Kulturartekotasuna txertatzea komunikabide publikoetan.	- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza



# PLANAREN KUDEAKETA EREDUA



Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planaren kudeaketa ezarpen, kontrol eta jarraipen iraunkorrean oinarritzen da, proiektuen garapenari buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatiboa modu eraginkor eta sistematikoan biltzea eta modu efizientean gauzatzea ahalbidetzen baitu; hartara, zailtasunak eta egokitzeko premiak atzemateko eta eduki nahiz esku-hartze ildo berriak txertatzeko alerta goiztiarreko eta abiarazteko sistema izango da.

Planaren kudeaketako eginkizun-banaketari dagokionez, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza da Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planari loturiko programa eta ekintzak kudeatzeko, kontrolatzeko eta garatzeko prozesuen arduradun nagusia. Ildo beretik, planteamendu horretan kudeaketa-elementu sendoak behar dira aurreikusitako emaitzak betetzea ahalbidetzeko (barruko edo kanpoko idazkaritza teknikoa) eta, aldi berean, Jaurlaritzaren sailetatik eta erakunde guztietatik egindako esfortzua indartu eta finkatzeko; datozen urteotan, Planaren ezarpenak jarraitu egingo du, betiere lehenetsitako gaiari arreta berezia emanez eta egindako lana aurretiaz definitutako esku-hartze eremu guztietara zabalduz.

Hori horrela izanik, Zuzendaritzaren egiteko nagusia Plan honen ezarpenari laguntzea eta bultzada ematea izango da, jardun-proiektu guztiak garatzen direla bermatuz, helburuak betetzen direla bermatuz eta Plana gauzatzen inplikaturako agente guztien koordinazioa bermatuz. Halaber, lan horri esker Planerako interesgarriak izango diren eduki berriak eta ekimenak aterako dira, urte bakoitzean garatu beharreko jardunak zehaztuko dira eta proposaturako ekimenei jarraipena egin eta monitorizatuko dira.

Zuzendaritzaren helburu nagusia helburu operatibotan banatzen da; hona hemen:

1. Planaren proiektuen jarraipen monitorizatua garatzea.
2. Planean proposaturako proiektu eta ekintzak zehaztu eta egokitzea, gauzatu beharreko jardunen urteko programazioa ahalbidetuz III. Planean ezarritakoari jarraiki.
3. Plangintzan proposaturako koordinazioko espazioak kudeatzea.
4. Dagoen adierazle-sistema zehaztu — egokitu — berrikustea, planaren hurrengo ebaluazioen garapenari lagunduz.

Planaren proiektuen ezarpenari eta garapenari dagokionez, planaren ekintza zehatzak kudeatzeko ardura agente arduradunei (Eusko Jaurlaritzaren Sail, Zuzendaritza eta erakunde autonomoi) dagokie. Ildo

beretik, oso garrantzitsua da arduradunek konpromisoa hartzea bi prozesu nagusitan: alde batetik, ekintzak gauzaten laguntzen, eta bestetik, garapenaren aldizkako jarraipena egiten, betiere Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak koordinatuta. Plana kudeatzen laguntzeko tresna eta lan hori koordinatzeko mekanismo den aldetik, Sail arteko Batzordearen espazioa nabarmendu behar dugu, Eusko Jaurlaritzaren sailtako arduradun guztiak bilduko baitira. Urtean aldizka egingo dira bilerak laneko espazio konpartitu horretan eta honako hauek izango dira eginkizun nagusiak: garatu beharreko lan-planaren urteko koordinazioa, esperientzia eta prozeduren azterketa konpartitua eta planaren jarraipen bateratua.

Planaren kudeaketarako eta jarraipenerako beste espazio garrantzitsu bat ere bada: Etorkinak Gizarteratzeko eta Gizartean Parte hartzeko Foroa. Koordinazio-organo horretan administrazio publikoak eta gizarte zibila biltzen dira eta egiteko garrantzitsua bete behar du immigrazioarekin loturiko gizarte-errealitate aldakor horretan ezarri beharreko egokitzapenei eta egin beharreko jarraipenari dagokienez. Parte hartzeko espazio horretan, planaren garapenaren eta aurrerabidearen berri eman beharko da aldizka, plangintza honen funtzionamendua eta edukiak hobetu eta egokitzeko ekarpenak egiteko espazio iraunkorrak zabaltzea ahalbidetuz.

Azkenik, Foru Aldundiekin eta Harrerako, integrazioko eta kultura arteko bizikidetasuneko Sarearekin (udal-sarea) elkarlanerako espazioa aipatu behar da, erakunde bakoitzaren proiektuak, baita proiektu konpartituak ere, indartzeko eta koordinatzeko egitura den aldetik.



# EBALUAZIOA ETA JARRAIPEN SISTEMA

Kudeaketa-sisteman proposatzen den moduan, Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Euskal Planaren ebaluazio-eredua jarraitua edo etengabea da; Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak berak sustatu eta koordinatu behar ditu planak egoki funtzionatzeko ezinbestekoak diren ebaluazio-prozesuak. Horretarako, Zuzendaritzako bertako langileak baliatuko ditu, baita kanpoko teknikari espezializatuen laguntza ere.

Ebaluazio-prozesuan, Plana gauzatzeko eta garatzeko ardura duten agenteek (Sailak, Zuzendaritzak eta erakunde autonomoak) Planaren jardunean sortutako emaitzak eta prozesuak ulertzeko eta aztertzeko beharrezkoa den informazioa aurkeztu beharko dute eta helburuen betetze-maila ere balioetsi beharko dute.

Herritar Etorकिन Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak lankidetzaren eginkizun garrantzitsua beteko duela esan behar dugu; aholkularitza-organo izaki, Foro horrek ebaluazioan parte hartu ahal izango du plana egokitzeko egin beharreko ekarpenak eginez eta ezarritako proiektu eta ekintzen bidez lortutako emaitzak aztertu eta balioetsiz.

Azkenik, Biltzen Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Zerbitzua eta Immigrazioaren Euskal Behatokia aipatuko ditugu; Immigrazioko eta Aniztasuna kudeatzeko Zuzendaritzaren bi tresna horiek gako-elementuak dira plangintza berri honen ebaluazioa, egokitzapena eta jarraipena egiteko prozesuetan kontuan izan beharreko informazioa aurkezteari dagokionez.

### 1. JARRAIPENERAKO TRESNAK (informazioa biltzeko sistema)

Jarraipenaren oinarriko alderdi bat zera da, informazioa biltzeko sistema bat ezartzea ebaluazio-prozesuak egoki garatzeko beharrezkoak diren datuak sistematikoki biltzea ahalbidetzeko, betiere arrazionaltasunaren eta eraginkortasunaren printzipioei jarraituz.

Jarraipen hori barneko kudeaketa-prozesu bat da eta, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak koordinatuta, plana gauzatzeko ardura duten agenteek garatu beharko dute. Prozesu hori egoki garatzeko, informazioa biltzeko lana erraztuko duten metodologia, tresna eta sistemak (ahal dela, telematikoak) sortu beharko dira eta lan hori Zuzendaritzak berak garatu eta koordinatu beharko du.

Ilido beretik, jarraipenaren metodologiari dagokionez, Planaren proiektu eta ekintzak garatzearen ondorioz sortutako **informazioa bildu eta lantzeko prozesua sistematizatu** egin behar da. Horretarako, honako urrats hauek jarraitu behar dira:

- **Plana informatizatzea.** Planaren funtsezko elementu guztiak datu-base formatura aldatzea.

- **Datuak biltzeko fitxa bat sortzea**, ekintza bakoitzaren betetze-maila, emaitzak eta eragindako inpaktua neurtzeko adierazle eta guzti.
- **Fitxen euskarri informatizatu bat** diseinatzea on line aplikazio batean, ekintzei buruzko informazio guztia gorde eta sistematizatzeko.
- **Informazio-bilketa** hori **etengabe** egin behar da, agente gauzatzaille bakoitzak datuak biltzeko fitxak bete eta dokumentatu beharko ditu ekintza amaitutakoan edo urtean behin.
- **Bildutako informazioa** Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzara **helaraztea**, gordetzeko.

Estandarizazioko eta automatizazioko prozesu horri esker:

- Planaren proiektuen gaineko kontrola handiagoa izango da. Aurreragoko ebaluazioak garatzea ahalbidetuz eta Plana egokituz.
- Proiektu bakoitzari buruzko informazioa zehaztuko da, helburuak, hartzaileak, garrantzia planaren barruan eta emaitzen nahiz inpaktuaren ebaluazio-adierazleak definitu eta deskribatuz.
- Planaren lehentasunak arautuko dira, ildo eta programa estrategikoetara egokitzen diren ekintzen bitartez.
- Planaren ebaluazio-adierazleak zehazteko eta definitzeko ahalegin handia egingo da.
- Informazioa bildu eta lantzeko prozesua sistematizatu duen lan-metodologia bat sortuko da, ebaluazioak errazago egitea ahalbidetuz.
- Inplikaturako agenteek egin beharreko lanaren jarraipena maizago eta zorrotzago egingo du Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak.

## 2. EBALUAZIO PROZESUA

La evaluación es la aplicación sistemática de procedimientos estandarizados para valorar la conceptualización y el diseño, la ejecución y la utilidad de los programas de intervención pública.

